



Francisco Pedraza Morenok, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren idazkariak,

EGIAZTATZEN DU

Inklusiorako Euskal Kontseiluak, diru-sarrerak bermatzeko eta inklusioaren arloko dekretu-proiektuei buruzko nahitaezko eta alde zuzeneko txostena emateko eskumena duenez, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 145.1.a) artikulua araberako, 2023ko maiatzaren 26an horretarako egindako bileran, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuari buruzko [I. eranskinean](#) agertzen den txostena onartu zuen, honako boto hauekin:

Aldeko botoak:

- Alfonso Gurpegi Ruiz, Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila (presidentea)
- Francisco Pedraza Moreno, Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila (idazkaria)
- Lide Amilibia Bergaretxe, Gizarte Politiketako sailburuordea
- Marian Olabarrieta Ibarrondo, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria (ordezkoa)
- Mario José Yoldi Domínguez, Etxebizitza eta Prozesu Eragileen zuzendaria
- José Luis Quintas Díez jauna, Osasuneko sailburuordea
- Nicolás Sagarzazu Alzua, Plangintza eta Antolaketa zuzendaria, Hezkuntza Saila
- Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua
- Oscar Seco Revilla, Gizarteratzeko zuzendari nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia (ordezkoa).
- Ekaitz Mentxaka Corral. Ugao-Miravallesko alkatea, Eudelen ordezkari moduan.
- María José Cano Mesías. FEDEFES
- Mikel Malcorra Ochotorena. ELKARTEAN
- Ana Sofía Telletxea Bustinza. Cáritas Euskadi
- David Tellería Herrera. KONFEKOOP.
- Txema Franco Barroso. FEVAS
- Arantza Saenz de Ugarte Eguisquiza. REAS EUSKADI
- Pablo Moratalla Santamaría. EHLABE
- Alfredo Santamaría Santaolalla. Sartu



- Aitor Ipiña Gallastegui. EAPN
- Amaia López Iriondo. CONFEBASK
- Xuria Arza Vélez. UGT
- Ernesto Notario Ajuria. Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargoa

Abstentzioak:

- Jone Robledo. CCOO.

Halaber, [II. eranskin](#) gisa erantsi da Inklusiorako Euskal Kontseiluak 2023ko maiatzaren 26an egindako bilkuraren akta; bilera horretan onartu zen txostena.

Vitoria-Gasteizen ziurtatzen da, 2023ko ekainaren 23an, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren presidentearen oniritziarekin.

O.E.

Idazkaria,

Presidentea,

FRANCISCO PEDRAZA MORENO

ALFONSO GURPEGUI RUIZ

**I. ERANSKINA****INKLUSIORAKO EUSKAL KONTSEILUAREN TXOSTENA, DIRU-SARRERAK BERMATZEKO
ERRENTAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA**

[HITZAURREA](#)[EUDEL](#)[BIZKAIKO FORU ALDUNDIA](#)[ARABAKO FORU ALDUNDIA](#)[ELKARTEAN](#)[FEVAS](#)[EAPN EUSKADI](#)[FEDEAFES](#)**HITZAURREA**

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 144.1 artikulua araberan, Inklusiorako Euskal Kontseilua aholkurako eta parte hartzeko organo gisa eratzen da, Eusko Jaurlaritzan diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloan eskumena duen sailari atxikita, eta bertan honako hauek izango dira ordezkatuak: Eusko Jaurlaritza, foru-diputazioak eta udalak, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak handiena duten sindikatuak eta sektore arteko patronalak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, erabiltzaileen elkarteak, inklusioaren arloan esku hartzen duten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak, eta gizarte-inklusioren arloan lan egiten duten profesionalenak.



Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 145.1 a) 2 artikuluari jarraikiz, diru-sarrerak bermatzeari eta inklusioari buruzko dekretu-proiektuei lotutako nahitaezko eta aurretiazko txostena egiteko eskumena du.

Lan eta Enplegu Sailak, transmisio telematiko bidez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretuaren txostena eskatu zion Inklusiorako Euskal Kontseiluari, 2023ko maiatzaren 19ko sarrera-datarekin.

Helburu horrekin, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren bilera baterako deia egin zen, 2023ko maiatzaren 26rako.

Inklusiorako Euskal Kontseilua osatzen duten entitateen ekarpen hauek jaso dira:

JASOTAKO EKARPENAK

Hona hemen entitate bakoitzaren ekarpenak: EUDEL

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ARABAKO

FORU ALDUNDIA ELKARTEAN

FEVAS

EAPN EUSKADI

FEDEAFES

EUDEL

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA

Artikuluei egindako ekarpen teknikoak

I.- Jarraian, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuaren artikuluei egindako alegazio eta aldaketa-proposamen teknikoak adierazten dira.

1) 2. artikulua.- Egoitza.

I.- Egoitzatzat hartzeko, 1-b) apartatuan ezartzen denez, etxebizitza batean bizikidetzan-unitateen erabilera independente eta eskusiborako erabiltzen diren eremuetan, erabilera eskusiboko komun-espazio bat egon behar da.

Komun-espazio horren kokapenari buruz interpretazio okerrik egon ez dadin, testuan zehaztu beharko litzateke komun-espazio horrek etxebizitzaren barruan egon behar duela.

II.- 1-c) apartatuan ondorioztatzen denez, dekretu honen ondorioetarako, egoitzatzat hartuko dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan aipatzen diren ostatu eta egoitzako gizarte-zerbitzuak.

Ostatu- eta egoitza-zerbitzuen xehetasunetan, gaueko harrera-zerbitzua (1.8) sartu behar da, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 13., 16. eta horiekin bat datozen artikuluetan horri buruz ezarritako eskakizunak betetzen dituelako.

III.- 1-c)-10. apartatua honela idaztea proposatzen da, gizarte-zerbitzuetan artatzen ari diren egoerak aitortzeko:

“10.- Ostatua ematen duten gizarte-zerbitzuek eskainitako beste edozein baliabide.”

IV.- 2. apartatuan, zehaztasun handiagoz jaso beharko litzateke zer titulu jotzen diren baliozkotzat, betiere barnean sartuz premia larriengatiko harrerak eta bazterketa-sisteman diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonak eta gezurrezko erroldatzeak.

2) 4. artikulua.- 18 eta 23 urte arteko pertsonen titular izateko bete behar dituzten betekizunak.

I.- 1-b) atalean, komeni litzateke argitzea 18 eta 23 urte arteko pertsonak DSBerako eskubidearen titular izan daitezela Lanbiden izena emanda egon behar dutela, bai enplegu-eskatzaile gisa, bai zerbitzu-eskatzaile gisa (LEABD eta EABD); izan ere, enplegu-eskatzaile gisa soilik izena emanda dauden pertsonetara mugatzen bada, lan-merkatuan sartzerik ez duten pertsonak ezingo lirateke DSBeren titular izatera iritsi.

II.- 3-b) apartatuan adierazten denez, eskaera egiteko unean edo aurreko urtean Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 31.1 a) artikuluan aipatzen diren ikasketak egin dituzten 18 eta 23 urte arteko pertsonak ezingo dira DSBeren titular izan. Komeniko litzateke manu hori argitzea, ez baita ulertzen zergatik uzten diren kanpoan, edo, hala badagokio, ezabatzea proposatzen da.



III.- 3-d) apartatuan ezartzen denez, Enplegu Plan Integratu eta Pertsonalizatuan lanaldi partzialeko lan-eskaintzak adostu dituztenak edo beren prestasunari dagokionez baldintzak eta mugak ezarri dituztenak ezingo dira DSBEnen titular izan.

4. artikulua honetan 3-b) apartatuari egindako alegazioan adierazitakoaren ildo beretik, ez da ulertzen DSBEnen titular izateko aukeraren muga hori; izan ere, 18 eta 23 urte arteko pertsona batek adingabeak edo mendekotasuna duten pertsonak izan ditzake bere kargura, eta kontziliazio-neurrien beharra izan dezake enplegua eta familia-bizitza bateragarri egiteko. Azaldutako arrazoiengatik, kentzea proposatzen da.

**3) 5. artikulua.- Aberrigabeek eta adingabeak babesteko sistemaren edo adingabe arau-
hausleei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende egon diren pertsonak
edo bizitza independenterako prestakuntza-programetan parte hartu dutenek
prestazioaren titular izateko bete behar dituzten betekizunak.**

I.-Lehen aipatutako abenduaren 22ko 14/2022 Legearen artikuluetan, ez da aberrigabeei buruzko aipamenik egiten, baina aztertutako dekretu-proiektuaren 5. artikuluan pertsona horiek prestazioaren titular izateko bete behar dituzten baldintzak ezartzen dira.

Horregatik, dekretuaren testuan zehaztasun handiagoz definitu beharko litzateke zein pertsonari buruz ari den.

II.- Bestalde, bi artikulutan bereiztea proposatzen da, batetik, zer betekizun bete behar dituzten aberrigabeen prestazioak jasotzeko eta, bestetik, zer betekizun bete behar dituzten adingabeak babesteko sistemaren edo adingabe arau-hausleei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende egon diren pertsonen edo bizitza independenterako prestakuntza-programetan parte hartu duten pertsonen prestazioaren titular izateko.

4) 6. artikulua.- Premia larrian dauden pertsonak titular izateko bete behar dituzten betekizunak.

1. apartatuan, dekretu honen ondorioetarako, "premia larria" zer den definitzen da, eta, besteak beste, c) letran honako hau jasotzen da: *«Gizarte-bazterketa larriaren diagnostikoa izatea, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuan edo hura ordeztzen duen arauan ezarritakoarekin bat».*

Ildo horretan, kontuan hartuta zer-nolako errealitatea duten bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonen zuzendutako lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen baliabideetara jotzen duten pertsonak, egoera hori muturreko premiarekin bateragarria denez, gizarte-bazterketaren diagnostikoa aipatzean «larri» terminoa ezabatzea proposatzen da, eta «bazterketa-arriskua» ere sartzea 6. artikulua 1. apartatuko c) letran.

Horrenbestez, honela geratzen da idatzita amaierako testua:

“c) Gizarte-bazterketaren edo gizarte-bazterketako arriskuaren diagnostikoa izatea, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuan edo hura ordeztzen duen arauan ezarritakoarekin bat”.

5) 12. artikulua.- Ahaidetasun-loturarik ez duten bizikidetzak

Dekretuaren artikulua horretan faltan sumatzen da lehen aipatutako abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 28. artikulua gehiago garatzea, ezkontza-harremanaren antzekoa aintzat hartzeari dagokionez.

6) 13. artikulua.- Ezohiko bizikidetzak eta haien kideak

Ezohiko bizikidetzak eta horien kideei dagokienez, artikulua honetan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan 5. paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorriz, manu horren testua bera edo antzeko idazketa bat sartzea proposatzen da:

«Etxebizitzan edo bizitokian bizi diren gainerako pertsonak, egon daitezkeen loturak alde batera utzita, beste bizikidetzak bateko kideatzat hartuko dira.»

7) 14. artikulua.- Kalteberatasunaren, bazterketaren edo egoitza berean nahitaez bizi behar izatearen ondoriozko ezohiko bizikidetzak

2. paragrafoan jasotzen da zer kasutan ulertzen den norbaitek autonomia pertsonala galdu duela eta horrek eragotzi eta mugatu egiten diola eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egitea, artikulua honen 1 b) apartatuan aurreikusitako ondorioetarako.

Artikulu horren 3. apartatuko azken tartekian eranstean da bizikidetzak horien iraupena gertaera eragileari lotuta dagoela eta, inola ere, ezin dela izan hiru urtetik gorakoa, pentsiodun-izaera aitortzen ez bada.

Komeniko litzateke jakitea eta dekretuaren testuan argi uztea zer gertatuko den aldi hori amaitzean, baldin eta pertsonak oraindik ere gertaera eragileari lotutako baldintzak badituzte eta pentsiodun-izaera aitortu ezin bazaie (horien artean daude, esaterako, administrazio egoera irregularreko pertsonak).

8) 15. artikulua.- Etxebizitzaren irisgarritasun-arazoen eta bertan bizitzeko egokia ez izatearen ondoriozko ezohiko bizikidetza-unitateak.

Artikulu honetan jasotzen da zein kasu joko diren ezohiko bizikidetza-unitatetzat, etxebizitza irisgarritasun-arazoengatik edo bizigarritasun-arazoengatik uzten denean.

Bi egoeretan, komeni litzateke argitzea, artikulu honetan edo egokiagoa bada beste batean, zer gertatzen den irisgarritasun- edo bizigarritasun-arazoengatik utzitako etxebizitzarekin, ondare gisa kontatu behar den ala ez jakiteko.

9) 16. artikulua.- Pentsioduna.

Artikulu honen bigarren paragrafoan, pentsio publikoen onuradunei buruzkoan, halakotzat hartzen dira norbere kontura diharduten edo autonomoak diren langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezia bestelako gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek aitortutako erretiroko eta ezintasun iraunkorreko prestazioen onuradunak.

Orobat, halakotzat hartzea proposatzen da Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko erretiroko eta ezintasun iraunkorreko prestazioen onuradunak ere, betiere egoera horiek manu honen 1. apartatuan jasota ez badaude.

10) 21. artikulua.- Inklusiorako programa integratu eta pertsonala egiteko eta sinatzeko laguntza ematea eta programaren konpromisoak eta betebeharrak betetzea.

21. artikulua jasotzen du DSBEren titularrek eta onuradunek Lanbiderekin lankidetzan jardun behar dutela Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala egiten eta sinatzen, bai eta beren konpromisoak eta betebeharrak betetzen ere. Baina Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak 3.1 artikuluan ezartzen duenez, DSBEren titularrak eta onuradunak betebeharrak horietatik salbuetsita geratuko lirateke.

Alde horretatik, eta hobeto ulertzeko, dekretu-proiektuaren 21. artikuluan betebeharrak horiek betetzetik salbuetsitako egoerak jasotzea proposatzen da, aipatutako 14/2022 Legearen 31.1 artikuluan jasoak, 29.1.c) artikuluekin lotuta.

11) 25. artikulua.- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular eta onuradun izateko betekizunak eta betebeharrak betetzeari eragiten dioten inguruabarren komunikazioa.

1. apartatuan honako hau esaten da:



«1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek eta onuradunek Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean eta erregelamendu honetan ezartzen diren betekizunak eta betebeharrak betetzeari eragiten dioten inguruabarren berri eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, baita prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea eragin ahal dutenena eta zenbatekoa eguneratzeko edo gerora sortutako beharizan-egoera deklaratzeko garrantzitsuak diren inguruabarrena ere».

Gure ustez, manu horretan prestazioa eteteko edo azkentzeko arrazoietatik salbuetsi beharko lirateke komunikazio-falta horrek legokiokeen prestazioaren zenbateko ekonomikoa kaltetzen duten kasuak; esate baterako, beste kide bat bizikidetzaren unitatean sartu izana ez jakinaraztea, horrek prestazioaren zenbatekoa areagotuko luke eta.

12) 33. artikulua.- Gehieneko errenta bermatua, oinarrizko zenbatekoa eta osagarriak.

I.- Manu honetan, guraso bakarreko bizikidetzaren unitateak aipatzen dira, eta unitate horien eta jasotako kasuen xehetasun handiagoa eskatzen da, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 34.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

II.- Lehen aipatutako 14/2022 Legeak, 25.3 artikuluan, honako hau dio: «Pertsona berak ezin izango du bi bizikidetzaren unitate edo gehiagoko kide izan.» Aztertutako testuaren 33. artikuluan 6. apartatuan, berriz, honako hau jasotzen da: «6. Zaintza eta jagoletza partekatua ezarrita duten kasuetan, seme-alaba komunei dagozkien osagarri indibidualerako eta bizikidetzaren unitatearen ezaugarriari lotutako osagarrietarako, haien balioaren % 50 zenbatuko da haiek integratzen diren bizikidetzaren unitate bakoitzean.»

Horrek ulertarazten du bi bizikidetzaren unitatetan (aurrerantzean, BU) egon daitezkeela.

Horregatik, gure ustez, atal honetan berariaz jaso beharko litzateke kasu horietan pertsona bat bi BUren parte izan daitezkeela.

III.- Bizikidetzaren unitatearen ezaugarriari lotutako osagarriari dagokienez, gure iritziz, guraso bakarreko unitateagatik osagarria eta genero-indarkeriagatik osagarria batera aplikatu ahal izan beharko lirateke.

13) 34. artikulua.- Indize zuzentzailea.

I.- Honela dio 2. apartatuak:



«2. Nolanahi ere, indize zuzentzailea aplikatuko da gastuak etxebizitza berean bizi diren bizikidetza-unitateen artean banatzen direnean, bizikidetza-unitateen erabilera independente eta eskusiborako erabiltzen diren eremuak kenduta».

Ata honetan zer egoeraz ari den xehetasun handiagoz azaltzea proposatzen dugu.

II.- Honela dio 3. apartatuak:

«3. Hala ere, 2.1.b) artikuluan aipatzen diren kasuetan, ez da aplikatuko indize zuzentzailea, baldin eta titulu juridikoan prezio finko bat itundu bada etxebizitzako eremu jakin batzuk bizikidetza-unitate batek modu independentean eta eskusiboan erabiltzeagatik, eta berariaz baztertu bada legokiokoen horniduren kostua jasanaraztea».

2. apartatuaz esan dugun bezala, xehetasun handiagoz azaldu behar da zer egoeraz ari den.

14) 35. artikulua.- Premia ekonomikoko egoerak.

2 a) apartatuan gehitu beharko litzateke egoera horiek gertatzen direla ulertuko dela, baldin eta aitortutako baliabideak gehi legokiokoen diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa gastu-mailaren gainetik badadue.

15) 36. artikulua.- Baliabideak zein diren orokorki zehaztea.

2. apartatuan, egoera desberdinak aurreikusten dira bizikidetza-unitateko kideetako bat gainerako kideenaz besteko bizileku batean bizi denean, denak ere kudeatzen zailak, eta zalantzak sortzen dira kide horien erroldatzeari dagokionez.

Bestalde, aipatutako 2. apartatuan deskribatutako egoeretan, muga bat ezarri beharko litzateke, manu horren azken tartekian egiten den bezala.

16) 38. artikulua.- Besteren konturako lanaren etekinak.

Proposatzen da 2. apartatuan kenkari edo murrizketa gisa sartzea, halaber, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa.

17) 40. artikulua.- Ondarearen etekinak.

5. apartatuan ezartzen denez, lortutako etekintzat joko dira hor zehazten diren diren titulu eta baloreen gaineko jabetza- eta gozamen-eskubideei diruaren legezko interesa aplikatzetik ateratako zenbatekoa duten errentak, haien balioa 3.000 eurotik gorakoa bada aurreko ekitaldi ekonomikoko abenduaren 31n.

Testuak ez du argi zehazten 3.000 euroko muga titulu edo balio bakoitzeko kalkulaturako etekinarena den edo titulu eta balio guztien etekinen batura den.

18) 41. artikulua.- Edozein titulutatik datozen etekinak.

Artikulu honetako 1. paragrafoko b) letrak ezartzen duenaren arabera, ez badira zenbatzen 44. artikuluko 1.a) letran jasotako laguntza finalistak, testuan aurreikusi beharko litzateke nola egiaztatu behar den helburu hori; izan ere, familiakoek 44.1.a) artikuluan aurreikusitako gastuei aurre egiteko emandako zenbatekoen kasuan, nekez justifika daitezke.

19) 42. artikulua.- Diru-sarrera atipikoak.

4 c). apartatuan honako hau esaten da:

«4. Ez dira zenbatuko baliatu ahal izan zirenetik urte bateko epean xede hauetarako erabiltzen diren diru-sarrerak:

... c) Lehen ibilgailua erosteko.»

Gure ustez, manu honetan sartu beharko litzateke lehen ibilgailua eskuratzea, betiere ez badu aparteko balioa, hau da, ibilgailuaren balioa ez bada legokiokeen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) zenbatekoa baino bost aldiz handiagoa.

20) 43. artikulua.- Eskubideak ez baliatzearen edo bizikidetzaren unitatearen ondarean galeraren bat eragitearen ondoriozko diru-sarreraren zenbaketa.

5. apartatuan, zehaztu egin beharko litzateke bertan aipaturako xedapen-egintzak zenbat denbora lehenago gertatu diren, 6. apartatuan egiten den bezala; nolahi ere, 6. apartatuan ezarritakoa baino luzeagoa izan behar du denbora-tarte horrek.

21) 44. artikulua.- Diru-sarrera ez-konputagarriak.

Manu honek, 1a.4 apartatuan, aurreikusten du ez direla kontuan hartuko etxebizitza alokatzearen ondoriozko gastuak osorik edo partzialki ordaintzera bideraturako laguntza finalistetatik datozen diru-sarrerak.

Horregatik, uste dugu azpierrentamendu-kontratuengatik jasotako zenbatekoek araubide bera izan behar dutela, eta, ondorioz, diru-sarrerak zenbatzetik salbuetsita geratu behar direla, betiere azpierrentamenduagatik jasotako zenbatekoen baturak ez badu gainditzen etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu beharreko zenbatekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 21.1.e) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Era berean, atal horretan gizarteratzeko laguntza finalistak sartzeari proposatzen da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 21.1.b) artikuluan jasotzen den bezala.

22) 53. artikulua.- Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen eta laguntzen muga ekonomikoa gainditzea.

2. apartatuko testu hau ezabatzea proposatzen da: *“... hargatik eragotzi gabe bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra.”*

Izan ere, 2. apartatua idatzita dagoen bezala, penalizazio bikoitza ekarriko luke: batetik, DSBE etetea, eta, bestetik, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzea. Egoera hori are kaltegarriagoa izango litzateke aldaketaren berri ematen duten pertsonen kasuan.

23) 56. artikulua.- Arreta eta laguntza.

Proposatzen da artikulua honetan jasotzea Lanbideren bulegoek izapideak betetzeko arreta eta laguntza emango dutela. Eta herritarren eskura jarriko dituztela behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak, informazio hori herritarren ezaugarrietara egokitu dadin, haien gaitasunen, hizkuntza-oztopoen eta muga funtzionalen arabera, besteak beste.

24) 61. artikulua.- Administrazio-egintzen jakinarazpena eta komunikazioa.

Manu honen 2. apartatua honela idaztea gomendatzen da:

«2. Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egiteko, aukera hori hautatu dutenentzat, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren V. tituluan eta Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamenduan edo ordeztan dituzten arauetan xedatutakoa beteko da.»

Argitasun handiagoa behar da 3. apartatuaren testuan, zer egoeratan aplikatzekoa den identifikatzeko.

25) 64. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpena.

4. ataleko bigarren tartekitik honako hau kentzea proposatzen da: *«...Egintza horren aurka ezin izango da errekursorik jarri.»*

Edo, bestela, zehaztea zein administrazio-egintza zehatzen aurka ezin den errekursorik jarri.

26) 73. artikulua.- Atzera egitea

2. eta 3. apartatuetan, DSBE aitortzeko eskaeran atzera egiteko aukera ezartzen da, zenbait egoera kontuan hartuta.

Bietan, eskatzaile bat baino gehiago aipatzen dira. Badirudi hori kontraesanean dagoela aipatutako 14/2002 Legearen 73. artikulua agindutakoarekin, non ezartzen baita prozedura interesdunak eskatuta hasiko dela, eskabidea aurkeztuta. Ildo beretik doa aztertutako dekretuaren 62 artikulua.

Horregatik, 27. artikuluan 2. eta 3. apartatuak hobeto interpretatzen ez badira, 14/2022 Legearen 73. artikuluan eta dekretu-proiektu honen 62. artikuluan aurreikusitakora egokitu beharko dira. Edo, bestela, apartatu horietan sartzen diren egoren xehetasun gehiago jaso beharko dira.

27) 113. artikulua.- Eskubidea etetearen eta berriz ematearen ondorioak.

Prestazioa etetea eragin zuten arrazoiak desagertu ondoren DSBE jasotzeko eskubideari berrekiteko (4. paragrafoa), ofizioz jardun behar dela irizten da; nolahi ere, pertsona horrek manu honetan zehaztutako betekizunak eta egoerak betetzen jarraitzen duela egiaztatu beharko du.

28) IV. titulua.- Prozedurak.

56. artikuluari alegatu bezala, IV. titulu honetan araututako prozedura guztietan jaso beharko litzateke Lanbideren bulegoek izapideak betetzeko arreta eta laguntza emango dutela. Eta herritarren eskura jarriko dituztela behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak, informazio hori herritarren ezaugarrietara egokitu dadin, haien gaitasunen, hizkuntza-oztopoen eta muga funtzionalen arabera, besteak beste.

29) I. eranskina.-Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular eta onuradun izateko betekizunak eta beste inguruabar batzuk egiaztatzea.

Proposatzen da B letran, 7. eta 8. betekizunetan, bietan, Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen, Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen edo administrazio publiko eskudunak genero-indarkeriaren biktimentzako dituen harrera-zerbitzuen txostena eranstea.

Horrez gain, proposatzen da 7. eta 8. puntuetan adierazitako betekizunak betetzen direla frogatzeko dokumentazio gisa sartzea genero-indarkeriaren egoera egiaztatzea, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 1eko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan 2. paragrafoan aurreikusitakoa betez.

II.- Jarraian, aztertutako dekretuaren testuan honako hauek sartzea edo garatzea proposatzen da:

1) Erroldatze “soziala edo fikziozkoa”.

Dekretu-proiektuaren I. eranskinean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko zer dokumentazio balia daitekeen zehazten da.

5 puntuaren A letran, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatzeari eta bizitzeari buruzkoan, egoera hori egiaztatzeko aukera jasotzen da, erroldatze soziala edo fikziozkoa baimentzen duen oinarrizko gizarte-zerbitzuen txostenaren bidez.

Hortaz, proposatzen da erroldatze «soziala edo fikziozkoa» egiteko aukera dekretuaren artikuluetan ere jasotzea.

2) Ezkontza-harremanaren antzekoa.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak 28 artikuluan definitzen du zer den «ezkontza-harremanaren antzekoa», bizikidetzat hartutak hartzeari dagokionez.

Bigarren apartatuan ezartzen duenez, kontrako frogarik ezean, ezkontza-harremanaren antzekoa dagoela ulertuko da, besteak beste, azken lau urteetan bi urtez, izan jarraian ala ez, elkarrekin bizi izan badira.

Horretarako, beharrezkotzat jotzen da erregelamendu bidez garatzea bai manu hori, bai ezkontza-harremanaren antzekoa ez dagoela egiaztatzeko modua.

Horregatik, erregelamendu bidez zehazten ez den bitartean, eta dagoen etxebizitza-arazoa kontuan hartuta, proposatzen da ez dadila ezkontza-harremanaren antzekotzat hartu etxebizitzaren erabilera egiaztatzen duen titulu bat aurkezten den kasuetan, dela baterako errentamenduan, dela azpierrementamenduan edo beste batean.

3) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuen eta Udaletako Gizarte Zerbitzuen arteko lankidetzat.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema prestazio ekonomikoek (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzek osatzen dute, bai eta lan- eta gizarte-inklusioko tresna eta zerbitzuek ere.

Prestazio ekonomikoak aitortu eta kontrolatzeko eskumena Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio, eta gizarte-larrialdietarako laguntzak aitortu eta kontrolatzekoa, berriz, udalei.

Bestalde, gogorarazi behar da, halaber, Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala egiteko eta sinatzeko, bai eta beren konpromisoak eta betebeharrak betetzeko ere, beharrezkoa izango dela DSBEren titularrek eta onuradunek, hala badagokie, beste babes-sistema batzuekin ere negoziatzea, enpleguaz bestelakoak, eta, besteak beste, gizarte-zerbitzuekin.

Aipatutako zirkunstantziak bi sistemen arteko lankidetzak eskatzen dute (enplegua eta gizarte-zerbitzuak); lankidetzak hori ez dago araututa DSBEri dagokionez, eta garatu egin beharko litzateke zehaztugabetasunik egon ez dadin.

4) Eteteko eta azkentzeko prozedurak.

Aztertutako Dekretuaren IV. tituluak xehetasun nahikoarekin jasotzen ditu DSBErekin lotutako zenbait prozedura, hainbat kapitulutan.

Hala ere, hutsunea igartzen da, eta IV. titulu honetan sartu beharko lirateke prestazioa eteteari eta azkentzeari buruzko prozedurak, non eta ez diren behar bezala garatutzat jotzen IV. titulu horretako V. kapituluan, kontrol-prozedurari buruzkoan.

5) Premia larriagatiko harrera.

Dekretuan eta, zehazki, 6. artikuluan, premia larriagatiko harrera aurreikusi eta arautu beharra dago.

6) Testu osoan.

Dekretu-proiektuan etxeko indarkeriako egoerak aipatzen dira, eta iruditzen zaigu etxeko indarkeria aipatzen denean familia barruko indarkeria gehitu behar dela, honela adierazita: «etxeko eta familia barruko indarkeria».

Bilbao, 2023ko maiatzaren 15a

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gaia: INKLUSIOA SUSTATZEKO ZERBITZUAK EGINDAKO TXOSTEN JURIDIKOA, DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZ

Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasun Sailak Herri Administrazio Saileko Aholkularitza Juridikoko buruaren eskaera jaso du, sailak alegazioak egin ditzan gaian aipatutako dekretuari buruz. Irailaren 25eko 9602/2019 Foru Aginduaren Bigarren Instrukzioan ezarritakoa betetzen da horrela, zeinaren bidez jarraibideak ezartzen diren beste administrazio publiko batzuek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatutako txosten eta alegazio juridikoak egiteko jarraitu beharreko prozedurari buruz.

Horregatik, sailtako zerbitzuen ekarpenak jaso ondoren, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 30 66/2020 Foru Dekretuaren arabera esleitutako aholkularitza juridikoko funtzioak baliatuz (66/2020 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren egitura organikoaren erregelamendua onartzen duena), sinatzaileari egoki iruditzen zaio ondorengo hauek kontuan hartzea:

OHARRAK

Lehenengoa.- 2. artikuluari buruz, «Egoitza»

2.1.b) artikulua idazketatik ondorioztatzen bada bizikidetzaren erabilera independente eta eskusiborako etxebizitzaren zona bakoitzak erabilera eskusiboko komun-espazio bat izan behar duela, hau da, hiru logela, hiru bizikidetzaren unitate, hiru bainugela, ez da egoera errealista Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta azpierrementuaren eta alokairuaren ikuspegitik lortu nahi duten pertsona gehientzat; izan ere, bizikidetzaren unitate askok ezin dute etxebizitza baten alokairu osoa izan, premia ekonomikoak direla-eta.

Beraz, iruditzen zaigu ezabatu egin beharko litzatekela erabilera eskusiboko komun-espazio baten aipamena.

Bigarrena:- 5. artikuluari dagokionez, «aberrigabeek eta adingabeak babesteko sistemaren edo adingabe arau-hausleei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende egon diren pertsonak edo bizitza independenterako prestakuntza-programetan parte hartu dutenek prestazioaren titular izateko bete behar dituzten betekizunak».

5.2.b) artikuluari dagokionez, kontuan hartu behar da gizarte-diagnostikoa pertsonaren premiak zehazteko tresna dela eta oinarri gisa balio duela eskatzaileak eskura ditzakeen prestazio ekonomikoen edota zerbitzuen sorta ezartzeko, zehaztuz zein baliabide edo baliabide-konbinazio den egokiena hautemandako beharrei erantzuteko; baina esku-hartzearen zehaztapena Arreta Pertsonalizatuko Planean islatzen da, eta hori da helburuak eta egin beharreko jarduketak zehazten dituen tresna. Beraz, gure iritziz, horrela idatzi beharko litzateke:

«b) *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuarekin edo ordezten duen arauarekin bat etorrira, kasuan kasu, arreta pertsonalizatuko planean xedatutako Gizarte Zerbitzuen Zorroko gizarte-inklusiorako zerbitzuen erabiltzaile izatea.*»

3. *Ezin izango da aurreko paragrafoko b) apartatuan aipatzen den betekizuna eskatu honako kasu hauetan:*

- *Gizarte-zerbitzuek egindako hasierako balorazioan (Zorroari buruzko Dekretuaren 18.3 artikulua araberak) egiaztatzen bada ez dela beharrezkoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzea.*

- *Erabiltzailea lotuta egon den adingabeentzako babes-sistemak, babes-neurriak kentzean, egiaztatzen badu ez dela beharrezkoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzea.*

- *Gizarte-zerbitzuek egindako hasierako balorazioak egiaztatzen badu hautemandako premiari jarraipenik behar ez duen esku-hartze puntual baten bidez erantzun dakiokela, betiere jasota uzten bada esku-hartze hori egin dela.*

- *Arreta pertsonalizatuko planaren jarraipenean egiaztatzen bada bete direla plan horretan jasotako helburuak.*

4. *Prestaziorako eskubidea aitortuz gero, artikulua honetan aipatutako pertsonak arreta pertsonalizatuko planean eta inklusiorako programa integratu eta pertsonalean ezartzen den epean izan beharko dute 2.b) paragrafoan adierazitako zerbitzuen erabiltzaile.*

Hirugarrena.- «Premia larrian dauden pertsonak titular izateko bete behar dituzten betekizunak».

6.1. c) *artikuluari dagokionez, gure ustez bazterketa-diagnostiko guztietarako izan beharko luke (arina, moderatua eta larria). Ez soilik gizarte-bazterketa larriko diagnostikoa duten kasuetarako.*

Laugarrena.- 140. artikuluari dagokionez, «Diru-sarrerak bermatzeko errenta titularra ez den beste pertsona bati ordaintzea bizikidetzaren unitateko kideak babesik gabe edo baztertuta geratzeko arriskua dagoela eta».



140.5 artikulua azken paragrafoan ezartzen denez, aukeratutako Euskadiko hirugarren sektore sozialeko entitateak prestazioaren titularraren eskubide eta betebeharrak izango ditu.

Prestazioaren titularraren eskubideak eta betebeharrak ezin zaizkio transferitu kobratzaile hutsa izango den pertsonari, eta kobratutako zenbatekoa emandako helburuetarako erabil dezan soilik exijitu dakioke.

Hori guztia dela-eta, sinatzen duenak, Zuzenbidean oinarritutako iritziz hobe bati uko egin gabe,

ESKATZEN DU

Txosten honetan zehaztutako alegazioak aurkeztutzat jo, eta kontuan har daitezela, dagozkion ondorioetarako.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

GAIA: AGIRI HONI EGINDAKO EKARPENAK: «AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO ONARPENA EMATEN BAITZAI DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI».

Proposamenak morez egin dira:

2. artikulua. ² Egoitza, 1.c) puntua: *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko gizarte-zerbitzuetako ostatu-zerbitzu eta egoitza-zerbitzu hauek, titulartasun publikokoak edo pribatukoak (ituna, hitzarmena edo zerbitzuak kudeatzeko kontratua dutenak):*

5.- *Laguntzadun etxebizitzak, desgaitasuna eta/edo buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzat.*

6.- *Desgaitasuna dutenentzako eta/edo buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza-zentroak, aldi baterako bizileku direnean.*

1. eranskina *Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titular eta onuradun izateko betekizunak eta beste inguruabar batzuk egiaztatzea*

B. *Berariazko eskakizunak. Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 17. artikulua*



B.1. 17.1. artikulua

BETEKIZUNA	AGIRIAK
7.- Genero-indarkeriaren biktima:	Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko eskumena duen administrazio publikoko gizarte-zerbitzuek, zerbitzu espezializatuek edo harrera-zerbitzuek egindako txostena, edo indarkeria matxistaren biktimentzako egoitzabaliabidean harreran egotearen ziurtagiria.
8.- Etxeko indarkeriaren biktima:	

B.2. 14/2022 LEGEAREN 17.2 artikulua

BETEKIZUNA	AGIRIAK
2.- Gizarte-inklusiora bideratutako Gizarte Zerbitzuen Zorroko zerbitzuen erabiltzaile izatea, edo, bestela, betekizun hori eskatzekoa ez izatea:	Gizarte-zerbitzuen txostena edo ziurtagiria.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 15a

ELKARTEAN**DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA**

Elkartean-ek (Asociación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Euskadi/Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea) jakin du jendaurrean jarri dela eta alde zuzeneko kontsulta egin zaiola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuari.

Dekretu-proiektu hori aztertu ondoren, Elkartean-ek ekarpen hauek aurkeztu ditu, helburu izanik desgaitasuna duten pertsonen diru-sarrera ekonomiko duinak izateko duten eskubidea bermatzea, hartara modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko eskubidea gauza dadin, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan



LAN ETA ENPLEGU
SAILA

Enplegu eta Gizarteratze
Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

Viceconsejería de Empleo e
Inclusión

aitortutako baldintzetan:

1. ekarpena

2. artikulua egoitzaren kontzeptua arautzen du Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren ondorioetarako, eta 1.c) apartatua ezartzen du, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzazentzoei dagokienez, egoitzatzat hartuko direla «aldi baterako etxebizitza direnean».

Elkartean-en iritziz, dekretu arautzaileak kontuan izan behar ditu nazioarteko zenbait erakundek ezarritako desinstituzionalizatzeko orientabideak; horien artean nabarmentzekoa da Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Batzordea, modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko eskubideari buruzko 5. ohar orokorraren bidez, bai eta Estatuan diseinatzen ari den desinstituzionalizaziorako estrategia ere.

Beraz, egoitza-zentro baten erabiltzaile diren eta dekretuan adierazitako behin-behinekotasunaren baldintza betetzen ez duten desgaitasuna duten pertsonak desinstituzionalizazio-prozesu formal batean sartzeko aukera aurreikusi beharko litzateke, eta horrek laguntza eta esku-hartze multzo bat eskatuko luke; horien artean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ordaintzea.

Hala, Elkartean-ek 2. artikuluari apartatu bat gehitzeko proposatzen du. Hona hemen testua: «Ulertuko da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko egoitza-zentro bat erabiltzen duten eta desgaitasuna duten pertsonak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari lotutako bizilekuari buruzko baldintza betetzen dutela, baldin eta, 1.c) 6 atalean adierazitako behin-behinekotasuna izan ez arren, desinstituzionalizazio-prozesu batean sartzen badira.

2. ekarpena

4.3. b) artikuluan ezartzen denez, «ezingo dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izan prestazioa eskatzen den unean edo aurreko urtean Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 31.1.a) artikuluan eta erregelamendu honen 28. artikuluan jasotako ikasketak egiten daudenak edo egiten izan direnak».

Elkartean-en iritziz, artikulua horrek urratu egiten du Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 16.1 d) artikuluan ezarritakoa. Izan ere, artikulua horretan jasotzen dira 18 eta 23 urte bitartekoak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko bete beharreko baldintzak, eta horien artean ez dago aipatutako legearen 31.1.a) artikuluan eta Erregelamenduaren 28. artikuluan aipatzen diren ikasketak ez egitea.



Bestalde, azpimarratu behar da aipatutako 31.1.a) artikuluan arautzen dela 29.1.b), c) eta d) artikuluetan diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular eta onuradunentzat ezartzen diren betebeharren salbuespena, eta aukera hori aitortzen zaie «enpleguarekin bateragarri ez diren ikasketa arautuak egiten ari direnei». Beraz, onartzen du ikasketa arautuak egiten dituzten pertsonak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular eta onuradun izan daitezkeela, eta erregelamendu-xedapen batek ezin du eragotzi eskubide subjektibo hori baliatzea.

Era berean, 18 eta 23 urte bitarteko pertsonak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen titular izateko duten eskubidea mugatu egiten bada prestakuntza-jarduera bat egiten ari direlako, horrek bultzatu dezake gizarte-bazterketa eta zaugarritasun ekonomikoa eragitea lan-jarduera bat garatzeko erabat prest dauden eta horretarako prestakuntza-prozesu bat egiten ari direnei.

3. ekarpena

Legearen 7.1 c) artikuluan adierazten denez, erabateko zurztasunaren parekotzat joko dira, semeagatiko edo alabagatiko diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen den egunean, bizirik dagoen gurasoak «III. mailako mendetasuna, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia» duten kasuak.

Elkartean-en iritiz, mendekotasun-egoerak edo lanerako ezintasun iraunkorreko egoerak parekatzeak, bi egoera horiek normalean desgaitasun-egoerekin lotuta daudenez, berekin dakar pertsona horiek guraso-lana egiteko ezgaitzat hartzea, eta horrek Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa urratzen du, zeinak desgaitasuna duten pertsonen berdintasuna eta gaitasun osoa aitortzen dituen, eta, ondorioz, diskriminazio-kasu bat da.

Beraz, III. graduko mendetasun-egoerari, ezintasun iraunkor absolutuari edo baliaezintasun handiari buruzko aipamena kentzea proposatzen da.

4. ekarpena

Legearen 15. artikuluan, etxebizitzaren irisgarritasun-arazoan eta bertan bizitzeko egokia ez izatearen ondoriozko ezohiko bizikidetza-unitateak, arautzen dira, eta, horretarako, pertsona hori egoera hauetakoren batean egotea eskatzen da:

- a) 65 urtetik gorakoa izatea
- b) Desgaitasuna duten pertsonak izatea, mugikortasun urria edo zentzumen-desgaitasuna dutenak.

Elkartean-en iritziz, etxebizitzaren irisgarritasun-arazoan eta bertan bizitzeko egokia ez izatearen ondoriozko ezohiko bizikidetza-unitatea eratzeko aukera aitortu beharko litzaieke gutxienez % 33ko desgaitasun aitortua duten pertsoneri, mugikortasun murriztu izateko betekizunak eskatu gabe. Hala, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak ez du mugatzen irisgarritasun unibertsalerako eskubidea mugikortasun urriko egoera aitortuta dutenetara, eta, bestalde, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legeak 10.1 b) artikuluan ezartzen du, jarduketan derrigorrezkototasunari dagokionez, *«irisgarritasun unibertsalaren arloan arrazoizko doikuntzak bermatzeko beharrezkoak diren obra eta jarduketak, eta, nolana ere, jabeak eskatuta eskatutakoak, baldin eta jabe horien etxebizitzan edo lokalean bizi badira, lan egiten badute edo borondatezko zerbitzuak ematen badituzte, desgaitasuna duten pertsonak edo hirurogeita hamar urtetik gorakoak, elementu komun erabilera egokia ziurtatzeko, bai eta arrapalak, igogailuak edo kanpoaldearekiko komunikazioa erraztuko duten bestelako gailu mekaniko eta elektronikoak instalatzea ere»*.

Beraz, etxebizitza egokituen erreserbari buruzko araudi erregulatuak mugikortasun urrituaren baldintza ezartzen duen arren, etxebizitzaren irisgarritasun unibertsaleko eskakizunak ez dira etxebizitza egokituetara eta mugikortasun murriztua duten pertsonetara mugatzen, eta desgaitasuna duten pertsona guztiei aitortzen zaizkie.

5. ekarpena

29. artikuluan ezartzen denez, III. kapitulu honetan xedatutakoaren inguruan sortzen diren kontuei ezin izango zaie errekurtsorik jarri. Nolanahi ere, Elkartean-en iritziz, berariaz jaso beharko litzateke interesdunak eskubidea duela entzunaldia izateko, egokitzen jotzen dituen oharrak eta alegazioak aurkezte aldera.

6. ekarpena

Elkartean-ek proposatzen du 34. artikuluan ezarritako indize zuzentzailea ez aplikatzea ezohiko bizikidetza-unitateei, baldin eta halakotzat hartzen badira pentsiodun izategatik, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. ekarpena

35.2.a) artikuluan ezartzen denez, premia ekonomikoko egoerarik ez dagoela ulertuko da «bizikidetza-unitateko kideetako batek ondasunak eta zerbitzuak eskuratzen dituenean eta mantentzen dituenean eta inguruabar horrek diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko aitortutako baliabideak eta zenbatekoa eguneratzeko eta gerora sortutako beharrian-egoera deklaratzeko prozeduretan aitortutakoak ez bezalakoak diren baliabideak izatea eragiten duenean».

Premia ekonomikoko egoera horrela zenbatesteak, objektibagarriak edo frogagarriak ez diren kanpoko zantzuen arabera, administrazioaren subjektibotasuna eta diskrezionalitatea eragin ditzake diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea onartzeko orduan. Beraz, Elkartean-en iritziz, irizpide objektiboak sartu beharko lirateke, bai eta prestazioa eskatzen duten pertsonen defentsa-berme handiagoak ere, eta, nolana ere, frogatu beharriaren karga Administrazioari ezarri beharko litzaioke. Kontsiderazio hori bera aplikatuko zaio 35.2 b) apartatuari ere.

8. ekarpena

36.2 c) artikulua ezartzen duenez, baliabide orokorrak zehazteari dagokionez, «titularra edo haren ezkontidea edo ezkontza-harremanaren antzekoa duen bikotekidea izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko egoitza-zerbitzu bateko plaza iraunkor baten erabiltzaile bada, bien baliabide guztien % 50 zenbatuko da, gehi bizikidetza-unitateko gainerako kideen baliabideak, eta ez dira sartuko egoitza-zerbitzuaren erabiltzaileari dagokion osagarri indibiduala eta bizikidetza unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriak».

Elkartean-en ustez, egoitza-zerbitzu baten erabiltzailearen guztizko diru-sarreraren % 50 zenbatzeak ez du haren benetako egoera ekonomikoa islatzen, kontuan hartuta zerbitzu hori erabiltzeagatik ekarpen ekonomiko bat edo koordinketa egin behar duela, eta horrek kalte nabarmena eragiten diola beste ezkontideari edo ezkontza-harremanaren antzekoa duen beste pertsonari.

Beraz, norberaren aukerako zenbatekoaren % 50 kontatzea proposatzen da, hau da, zerbitzuagatik koordainketa gisa ordaindutako zenbatekoa kendu ondoren geratzen denaren % 50.

9. ekarpena

42.2 artikulua ezartzen duenez, ez dira zenbatuko baliatu ahal izan zirenetik urte bateko epean xede jakin batzuetarako erabiltzen diren diru-sarrerak.

Elkartean-ek honako kasu hauek sartzea proposatu du:

- Desgaitasuna duen pertsonaren ondare babestuaren alde ekarpenak egiteko.
- Desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonalerako laguntza-produktuak eta irisgarritasun-gailuak eskuratzeko.

10. ekarpena

49. artikulua ibilgailuen balorazioa arautzen du, eta Elkartean-ek apartatu hau gehitzea proposatzen du: “Ez dira baloratuko mugikortasun urriko pertsonak gidatzeko eta/edo garraiatzeko egokitutako ibilgailuak”.

11. ekarpena

VII. kapituluaren bidegabe jasotako diru-kopuruak itzultzeko espedienteak arautzen da. Baina ez dira jasotzen eta, ondorioz, ez dira arautzen, ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaerak egiteko baldintzak. Aukera horiek azaltzen dira, ordea, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 54.6 artikuluan eta 64.4 artikuluan. Beraz, proposatzen da erregelamendu bidez garatu eta arautzea bidegabe jasotako zenbatekoen itzulketa geroratzeko edo zatikatzeko aukera.

12. ekarpena

Elkartean-ek xedapen gehigarri bat gehitzea proposatu du, non ezartzen den Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak txosten bat egingo duela, diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendua onartzen duen dekretua indarrean jarri eta bi urteko epean. Txosten horretan, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren esparruan sartu beharreko ekintza positiboko neurriak aztertuko ditu, desgaitasuna duten pertsonen bizitza independenterako eskubidea (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikulua) gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak izango dituztela bermatzeko.



13. ekarpena

Elkartean-ek proposatu du xedapen gehigarri bat sartzea, zeinaren bidez Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari ahalmena emango baitzaio Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko prozedura edo betekizunak malgutzeko, betiere Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari behar bezala jakinarazita eta haren baimenarekin, desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentearen eredia sustatzeko proiektu esperimental eta eraldatzaileen esparruan.

Donostia, 2023ko maiatzaren 17a

FEVAS

FEVAS PLENA INCLUSION EUSKADI ELKARTEAREN JARRERA ETA EKARPENAK, DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZ

2023ko maiatzaren 16a

Dokumentu honetan, FEVAS Plena inclusión Euskadi elkartearen jarrera eta ekarpenak jasotzen dira, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuari buruz. FEVA Plena Inclusión Euskadi elkartetik, gure gogoetak eta proposamenak aurkeztu dizkiegu Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (aurrerantzean, DSBE) erregulazioa hobetzeko aurretik egin diren dokumentuei eta ekimenei. Eskertzen dugu proposamenak egiteko izan dugun aukera eta proposamen horietako batzuk arau-testuetan sartu izana. Bai aurretiazko ekimenetan, bai proiektu berri honi dagokionez, gure jarreraren eta ekarpenen helburua da adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideak eta interesak bermatzea.

Hauek dira FEVAS osatzen duten elkarteak: Apdema, Apnabi-Autismo Bizkaia, Aspace Bizkaia, Aspace Gipuzkoa, Atzegi, Fundación Goyeneche de San Sebastián, Fundación Usoa Fundazioa, Futubide, Gautena, Gaude, Gertuan Fundazioa, Gorabide eta Uliazpi.

TESTUINGURUA ETA OHAR OROKORRAK

Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak behar bezala kontuan hartzea defendatzen dugu, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzen duen esparru berrian; haien eskubideak, laguntza-premiak eta desgaitasunagatikoa desabantailak aitor daitezela, «bazterketa-arriskuari aurrea hartzeko», «bazterketa pertsonaleko, sozialeko eta laboreko egoerak arintzeko», «bizitza duinaren garapena bermatzeko» eta «baliabide pertsonal, laboral, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenak



LAN ETA ENPLEGU
SAILA

Enplegu eta Gizarteratze
Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

Viceconsejería de Empleo e
Inclusión

gizartean erabat sar daitezen sustatzea». (1. art.- Xedea).



Hori guztia, kontuan hartuta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema hori oinarritzko tresnetako bat dela:

o Batetik, bizimodu duina izatea bermatuko dieten baliabide ekonomiko nahikoak izateko eskubidea bermatzeko, bizi-maila egokia eta gizarte-babesa izateko eskubidea ziurtatuz, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 28. artikulua araber¹. Xedapen horren arabera, botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte desgaitasunen bat duten pertsonen haientzat eta haien familientzat egokia den bizitza-maila izateko duten eskubidea babesteko eta sustatzeko (hor sartzen dira elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak eta bizi-baldintzen etengabeko hobekuntza), desgaitasun-arrazoiengatik diskriminaziorik gabe.

o Bestetik, modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko eskubidea bermatzeko, Konbentzioren 19. artikulua araber. Xedapen horrek aitortzen du pertsona desgaitu guztiek dutela erkidegoan bizitzeko eskubidea, gainerako aukera berdinekin, eta botere publikoak behartzen ditu neurri eraginkor eta egokiak hartzera, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubide hori erabat baliatu ahal izan dezaten eta komunitatean erabat sartu eta parte har dezaten, eta ziurtatzen die, besteak beste, «bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duten aukeratzeko aukera izan dezatela, gainerako baldintza berberetan, eta ez daitezela behartuta sentitu berariazko bizitza-sistema baten arabera bizitzera».

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Komiteak berak, bere 5. ohar orokorrean (2017), modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko eskubideari buruzkoan (9. puntua), ezartzen du bizimodu egokia izateko eskubidea –elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak barne– modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko eskubidearen oinarrietako bat dela.

¹Konbentzioa gure ordenamendu juridikoaren parte da 2008tik. 2006ko abenduaren 13an ezintasunen bat duten pertsonen eskubideei buruz New Yorken egindako Nazio Batuen Konbentzioa berresteko tresna (BOE, 96. zk., 2008ko apirilaren 21ekoa). Nazioarteko Tratatuaren eta Akordioaren 25/2014 Legearen arabera, «balio osoz egindako eta ofizialki argitaratutako nazioarteko tratatuetan jasotako arau juridikoak gailenduko dira barne-ordenamenduko beste edozein arauen gainetik, haiekin gatazkarik sortuz gero, konstituzio-mailako arauak izan ezik» (31. artikulua, itunen lehentasunari buruzkoa).

FEVAS PLENA INCLUSION EUSKADI ELKARTEAK DEKRETU-PROIEKTUARI EGINDAKO EKARPENAK ETA PROPOSAMENAK

I. TITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

- **2. artikulua.-Egoitza:** Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak barne hartzea, egonaldi iraunkorrean daudenean, funts publikoekin guztiz finantzatuta ez badaude.

Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonak adin desberdinetan sartzen dira egoitza-plazetan, ez adinean aurrera eginda bakarrik. Gainera, kasu askotan, pertsona horiek urte askoan bizi izaten dira zerbitzu horietan, eta hortxe dute ohiko bizilekua. Beraz, kasu askotan, bai mendekotasun-egoeragatik bai adinagatik, ez dute ondarerik edo diru-sarrerara propiorik sortu.

Dekretu honen planteamenduaren arabera, pertsona horiek ezin izango dute DSBEn zenbateko egokitu bat jaso otordu- edo etxebizitza-gastuez bestelakoetarako, gastu horiek egoitza-plazan sartuta daudelako. Beraz, ez zaie estaldura ekonomikorik ematen gastu hauetarako: oinarrizko jantziak, poltsikoko dirua, laguntza teknikoak (ikusmena, entzumena, komunikaziorako sistema handigarri eta alternatiboak, egokitzapenak, mugikortasuna eta abar.) edo osasunaren eta ongizatearen arreta (aho-hortzen osasuna, ikusmenaren osasuna, entzumenarena, zahartze-prozesua zaintzea eta abar).

Bestalde, baliteke pertsona horiek banakako laguntza-premiak izatea eta laguntza profesionala behar izatea komunitatean sartzeko.

Bestalde, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten eta egoitza-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak beren gain hartzen dute plazaren prezio publikoa ordaintzea, eta, beraz, gure interpretazioaren arabera, zerbitzu horiek ez dira osorik funts publikoekin finantzatzen.

II. TITULUA- TITULARREN ETA ONURADUNEN BETEKIZUNAK, BIZIKIDETZA-UNITATEAK ETA BETEBEHARRAK

- **15. artikulua.- Etxebizitzaren irigarritasun-arazoaren eta bertan bizitzeko egokia ez izatearen ondoriozko ezohiko bizikidetza-unitateak:**

b) Desgaitasuna duten pertsona guztiak sartzea.

Artikulu horretan aipatzen den dekretuak (80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, EAEn etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienerako bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen) ez du bereizketarik egiten desgaitasuna duten pertsonen artean. Beraz, uste dugu dekretu-proiektu honek koherentzia horri eutsiko beharko liokela. Halaber, desgaitasunen bat duten pertsonak bizitza independentea izateko eskubideari buruzko nazioarteko araudiak ere ez du bereizketarik egiten desgaitasuna duten pertsonen artean.

Modu independentean bizitzeko eta komunitateko kide izateko eskubideari buruzko 5. ohar orokorrak honako hau dio:

«24. Nola, non eta norekin bizi aukeratzea; horixe da modu independentean bizitzeko eta komunitateko kide izateko eskubidearen muina. Beraz, erabaki pertsonalak ez dira bizilekura mugatzen, eta pertsonaren bizi-sistemaren alderdi guztiak hartzen dituzte: ordutegiak, errutinak eta bizimodu eta bizi-estiloa, bai eremu pribatuan bai publikoan, egunerokoan zein epe luzean.

25. Desgaitasuna duten pertsonak, askotan, ezin izaten dituzte erabakiak hartu, alternatibarik ez dagoelako. Hala gertatzen da, adibidez, aukera bakarra familiaren laguntza ez-profesionala denean, erakundeetatik kanpo laguntzarik ez dagoenean, etxebizitza irisgarria ez denean edo komunitatean laguntzarik ez dagoenean, eta laguntza hori bizileku jakin batzuetan bakarrik eskaintzen denean, hala nola etxe funtzionaletan edo erakundeetan.»

Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak dagokienez, ingurune, ondasun eta zerbitzu asko ez dira irisgarriak laguntza kognitiboaren premia duten pertsonentzat; adibidez, autismoaren espektroko nahasmendua dutenentzat (AEN). Horietako batzuek zailtasunak dituzte zentzumen bidezko prozesamenduan (ikusmen-, entzumen- eta ukimen-pertzepzioa eta zentzumenen integrazioa), eta oso sentikorrek dira estimulu batzuekiko (soinuak, usainak, argiak eta abar). Gainera, laguntza-premia handia izaten dute. Horregatik, etxebizitza bat irisgarri ez izateak, bizi diren eraikinaren ezaugarriez haratago, bestelako kontu batzuk ere bil ditzake, hala nola garraiorako sarbidea, pertsonak mugitzeko eta eguneroko bizitzarako (profesionala zein ez) behar dituen laguntzak eskura izatea edo etxebizitzaren inguruko oztopoak (kaleko obrak, adibidez). Nolanahi ere, gure ustez, bizigarritasun eza dokumentu bidez justifikatu ahal izango da beti; adibidez, egoera jakin bat deskribatzen duen txosten baten bidez.

- 19. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumenak baliatzen direnean harekin lankidetzan aritzea, informazio zehatza eta egiazkoa ematea, betekizunak egiaztatzea, agiriak aurkeztea eta jakinarazpenak eta komunikazioak jaso direla bermatzea.

Informazioa eskuratzeari eta izapidetze-prozesuak sinplifikatzeari dagokienez:

- Beharrezkoa da jakinarazpenen hizkuntza ahalik eta gehien erraztea, eta jakinarazpenak behar bezala komunikatzeko eta ulertzeko neurriak bermatzea. Zehazki, irisgarritasun kognitiboko baldintzak, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren sartzeko eskaerari eta dokumentazioari dagokienez. Besteak beste: informazio eskuragarria, irakurketa erraza, hizkuntza argia, ingurune eta teknologia eskuragarriak, pertsonak eskura.

Irakurketa Erraza testuak egokitzeko metodologia zehatz bat da, eta arau honetan zehazten da: «UNE 153101:2018 EX, irakurketa errazari buruzkoa. Dokumentuak egiteko jarraibideak eta gomendioak».

- Pertsona bakoitzari aukera ematea adieraz dezan prestazio honi lotutako komunikazioak nola, non eta nori iristea nahi duen. Zehazki, aukera ematea komunikazio horiek bikoizteko eta beste pertsona edo helbide batzuetara bidaltzeko, baldin eta pertsonak hala eskatzen badu.
- Ziurtatzea sinplifikatu egingo direla izapideak eta aurkeztu beharreko dokumentuak, sistemen arteko elkarreragingarritasunean aurrera eginez.

III. TITULUA - ZENBATEKOAREN ZEHAZTAPENA, PREMIA EKONOMIKOKO EGOERA ETA PRESTAZIOAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

- 34. artikulua.- Indize zuzentzailea

%15eko beheranzko indize zuzentzaileari dagokionez, proposatzen dugu ez dadila aplikatu titularrak (bizikidetz-unitatekoa edo ezohiko bizikidetz-unitatekoa) desgaitasuna badu.

Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen baliabideak eta laguntzak behar dituzte, gizartean erabateko inklusioa lortzeko. Laguntza horiek ezinbestekoak dira haien ongizate fisikoa eta emozionala hobetzeko, alderdi pertsonala garatzeko, autodeterminazio-eskubidea baliatzeko eta harreman pertsonal eta sozial egokiak ezartzeko, edo bizitza independentea izateko eskubidea errealitate bihurtzeko.

Halaber, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren arau-esparruak ezartzen duen bezala, haren printzipioen artean daude berdintasuna eta ekitatea, eta arreta pertsonalizatua. Beraz, adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen inklusioak esan nahi du, behar dituzten laguntzei erreparatuz gero, laguntza horiek erabilgarriak eta eraginkorrak izan behar dutela, haien beharretara egokitzeko.

Bestalde, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsona askok ez dute etxebizitza partekatu beste aukerarik, beren diru-sarrera ekonomikoak ez baitira nahikoak bizitza independente bat garatzeko erabilera indibidualeko etxebizitza batean. Beraz, kasu horietan oinarritzko zenbatekoa beti % 100ekoa izatea iradokitzen dugu, emantzipazio-proiektua bultzatzeko xedez, kontuan hartuta desgaitasun bat izateak ahalegin ekonomiko handiagoa egin beharra dakarrela. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordearen 6. Ohar Orokorrak, berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoak, honako hau dio bizi-maila egokiari eta gizarte-babesari buruz (Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 28. artikulua): «68. Batzordearen 3. ohar orokorraren 59. paragrafoan

LAN ETA ENPLEGU
SAILAEnplegu eta Gizarteratze
SaiburuordetzaDEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEOViceconsejería de Empleo e
Inclusión

adierazten denez, pobrezia, faktore astungarria ez ezik, diskriminazio anizkoitzaren ondorio ere bada.

Desgaitasuna duten pertsonen haientzat eta haien familientzat egokia den bizi-maila izateko duten eskubidea ez gauzatzea Konbentzioaren helburuen aurka doa. Hori bereziki kezkarria da muturreko pobrezian edo txirotasunean bizi diren eta desgaitasuna duten pertsonen dagokienez. Gainerakoek pareko bizi-maila egokia lortzeko, desgaitasuna duten pertsonen gastu gehigarriak izaten dituzte. Horrek desabantaila berezia dakar muturreko pobrezian edo txirotasunean bizi diren eta desgaitasuna duten haurrentzat edo emakumeentzat. Estatu partaideek neurri eraginkorrak hartu behar dituzte, pertsona desgaituek ordaindu ahal izan ditzaten desgaitasunarekin zerikusia duten gastu gehigarriak. Estatu partaideek berehalako neurriak hartu behar dituzte muturreko pobrezian eta txirotasunean bizi diren pertsona desgaituei elikadura, jantzi eta etxebizitza arloetan gutxienezko oinarrizko mailak emateko.»

- 44. artikulua.- Diru-sarrera ez-konputagarriak

Gure iritziz, diru-sarrera ez-konputagarrien artean sartu behar da zerbitzu okupazional baten erabiltzaile izateagatik haborokina (Eusko Jaurlaritzaren 257/1986 Dekretuaren 33. artikuluan jaso).

- 49. artikulua.- Ibilgailuen balorazioa

Ibilgailuen balorazioan, mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailu egokituak salbuestea proposatzen dugu.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 20. artikulua, mugikortasun pertsonalari buruzkoak, honako hau dio: «*Estatu partaideek neurri eragingarriak hartuko dituzte, ziurtatzeko pertsona desgaituek mugikortasun pertsonala dutela, ahalik eta independentzia handienarekin; besteak beste: a) Pertsona desgaituen mugikortasun pertsonala erraztegi, nahi duten moduan eta unean, arrazoizko kostuan; (...)*».

Bestalde, 9. artikuluari buruzko 2. ohar orokorrak, irisgarritasunari buruzkoak, honela dio sarreran: «*Irisgarritasuna aurretiazko baldintza da desgaitasuna duten pertsonak modu independentean bizi ahal izateko eta gizartean baldintza berdinetan parte hartu ahal izateko. Irisgarritasunik ez badute ingurune fisikorako, garraiorako, informazio eta komunikazioetarako (informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak barne) eta publikoari irekitako edo erabilera publikoko beste zerbitzu edo instalazio batzuetarako, desgaitasuna duten pertsonen ez dituzte gizartean parte hartzeko aukera berdinak izango. Ez da kasualitatea irisgarritasuna izatea desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipioetako bat (3.f art.)»*

IV. TITULUA - PROZEDURAK

- 56. artikulua.- Arreta eta laguntza

1. Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen aurrez aurreko laguntzak bermatu behar zaizkie, prestazio hori errazago eskuratu eta izapidetu ahal izateko. Bereziki, digitalizaziorantz aurrera egiten ari den ingurune batean, pertsona askok laguntza eta arreta presentziala behar dute, eta hori eman beharko litzaieke.

- 57. artikulua.- Eredu normalizatuak

Izapideak egiteko eredu normalizatuen hizkuntza argiari dagokionez, eredu horien testuak ulermen-zailtasunak dituzten pertsonen baliozkotzea iradokitzen dugu, ulertzen direla ziurtatzeko.

- 96. artikulua.- Akatsen zuzenketa

Eskabidean dauden hutsak, akatsak edo kontraesanak konpontzeko bost eguneko epeari dagokionez, egoki iruditzen zaigu epe hori 10 egunera luzatzea. Askotan, desgaitasuna duten pertsonen beste pertsona batzuen laguntza behar izaten dute administrazio-izapideak egiteko. Hori dela-eta, baliteke gestio batzuk egiteko denbora gehiago behar izatea.

Halaber, egun baliiodunak izatea iradokitzen dugu, ziurtatzeko eraginkorrak direla izapideak edo eskaerak egiteko eta dokumentuak jasotzeko epearen barruan dauden egunak.

- 140. artikulua.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta titularra ez den beste pertsona bati ordaintzea bizikidetzaren unitateko kideak babesik gabe edo baztertuta geratzeko arriskua dagoela eta.

5. Hirugarren sektore sozialeko entitateen artean sartzea desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoari laguntzeko fundazioak eta adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko elkarteak.

I. ERANSKINA

- **84. orrialdea:** 9.a) ii: Desgaitasun-maila egiaztatzen duen ziurtagiria edo txartela (15. artikuluaaren ekarpenarekin bat etorriz).

EAPN EUSKADI

Jakinarazten da alegazioak epea amaitu eta hurrengo egunean jaso direla; baina, hala ere, kontuan hartu dira.

OHARRAK: DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN**DUEN DEKRETU-PROIEKTUA****OHAR OROKORRAK:****1.- AURREZ AURREKO ARRETA PERTSONALIZATUA JASOTZEKO ESKUBIDEA BERMATZEKO BEHARRA:**

Digitalizazio-prozesuen, izapide elektronikoen eta abarren aldeko apustu argia ikusten dugu. Kontu logikoa da gaur egun, teknologiaren garapena kontuan hartuta. Baina kezkatu egiten gaitu, horrek zenbait pertsonarengan etena eragin dezakelako. Horregatik planteatzen dugu aurrez aurreko arreta pertsonalizatua jasotzeko eskubidea bermatzeko beharra.

Batzuek arazoak dituzte Lanbidek gutun baten bidez komunikatzen diena ulertzeko. Horregatik, hizkuntza erraza erabiltzeaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu pertsonei aurrez aurreko arreta ematea.

Digitalizazioa eta atzerritarrak: Zer gertatuko da «ziurtagiri digitala» atera ezin duten atzerritarrekin?

2.- ERREFERENTZIAZKO PERTSONA BAT DAGOELA BERMATZEKO BEHARRA:

Pertsona kalteberek dituzten zailtasunak direla-eta, beharrezkoa da Lanbiden erreferentziazko profesional bat egotea, behar duten pertsonek aukera izan dezaten Lanbiderekin duten harreman-prozesu osoan harengana jotzeko, orientazioa eta informazioa eskatzera.

3.- PERTSONEN ARTEAN INOLAKO LOTURARIK EGON GABE BEREN BIZILEKUA PARTEKATZEKO BEHARRA:

Pertsonek garatzen dituzten inklusio-prozesuetan, kasu batzuetan, pertsonek prozesu horietan aurrera egin dezakete helbidea partekatuz. Egoera hauetan aurrera egiten da, eta egoitza instituzionaletatik autonomia handiagoko egoera batera igarotzen dira.

Bikotekideak direla edo haien artean loturaren bat dagoela interpretatzeak, denbora-tarte bat igaro ondoren elkarrekin jarraitzen badute eta, beraz, indize zuzentzailea aplikatu behar bazaie, kalte egiten die pertsona horiei, eta eten egiten du inklusio-prozesua.

Horregatik, horrelako kasuetan indize zuzentzailea ez aplikatzeko beharra planteatzen dugu.

4.- HIRU HILEZ BEHINGO KALKULUA:

Kezka sortzen digu eredua aldatu eta hilerokoa izatetik hiru hilez behingora pasatzeak, iruditzen zaigulako aldaketa horrek arazoak ekar ditzakela sistema ongi ulertzen ez dutenentzat eta hiruhileko batean gehiegi kobratu dutena hurrengo hiruhilekoan kenduko zaiela jabetzen ez direnentzat.

Horregatik eskatzen diogu Lanbideri sistema hori azaltzeko ahalegina egin dezala, hartzaileak kontu honen jakitun izan daitezen eta etorkizunean arazorik egon ez dadin.



ARTIKULUEI BURUZKO OHARRAK. 2.

ARTIKULUA. HELBIDEA:

«Komunitate terapeutikoak» sartzeari proposatzen dugu; «tratamendu zentro» edo antzeko izenez ere deitzen zaie.

6. ARTIKULUA PREMIA LARRIAN DAUDEN PERTSONEK TITULAR IZATEKO BETE BEHAR DITUZTEN BETEKIZUNAK

1. C apartatuan hau jasotzen da: Gizarte-bazterketa larriaren diagnostikoa izatea, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuan edo ordeztzen duen arauan ezarritakoarekin bat.

Testu horren ordez, honako hau jartzea proposatzen dugu: Gizarte-bazterketaren diagnostikoa izatea, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuan edo ordeztzen duen arauan ezarritakoarekin bat.

Asiloa ukatzen zaien pertsonen buruzko zalantza:

Ebazten ez den bitartean dena eskura dezakete, eta ukatzen zaienean DSBE kentzen zaie?

Zer gertatzen da ukapena errekurritu duten asilo-eskatzailerekin?

14. ARTIKULUA EZOHIKO BIZIKIDETZA-UNITATEAK...

Zenbait zalantza ditugu:

Bigarren mailako gizarte-zerbitzuetan egon diren pertsonen kasuan; beren helburua batzuk elkartzea eta DSBE kobratzen jarraitzea da. Legearen arabera (26.2 artikulua), ezohiko bizikidetza-unitate horiek ezin dute iraun hiru urte baino gehiago: Hiru urtean behin mugitu beharko dira? Diru-sarrerak bermatzeko errenta kobratzeari utziko diote?

Pisua partekatzen duten pertsonen gaiak ere zenbait zalantza sortzen dizkigu. Ezohiko unitateak dira? Legean «teknikariaren irizpidearen arabera» aipatzen da, eta erregelamenduan ez da hori adierazten. **19. ARTIKULUA**

2. apartatuan honako hau esplizitatzen da:

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek eta onuradunek posta-helbide bat eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, paperezko jakinarazpenak egin ditzan, baldin eta jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez jasotzea aukeratu ez badute.

Halaber, hauek eman beharko dizkiote: telefono finkoaren eta sakelakoaren zenbakia, helbide elektronikoa, eta, hala badagokio, baimendutako beste gailu elektroniko baten identifikazioa.

Gaur egun, Lanbideren bulego batzuek ezin dute erroldako helbideaz bestelako jakinarazpenetarako helbiderik jarri.

34. ARTIKULUA INDIZE ZUZENTZAILEA

Zalantza: Bizikidetzatza-unitate bat baino gehiago bizi badira, hornidurak ordaindu gabe. Kasu horretan, ez da indize zuzentzailerik aplikatzen; hornidurak ordaintzen direnean bakarrik. Ongi ulertu al dugu?

44. ARTIKULUA EGOTZI EZIN DIREN DIRU-SARRERAK

Zalantza batzuk ditugu:

Nola hartuko dira kontuan gizarte-entitate jakin batzuek pertsonari ematen dizkieten laguntza ekonomikoak?

45. ARTIKULUA ONDAREA ZEHAZTEA

3. apartatua hau jasotzen da: Higiezin batek aparteko balioa duela ulertuko da haren katastroko balioa 600.000 eurotik gorakoa denean. Kasu horretan, zenbateko hori gairiditzen duen kopurua zenbatuko da.

Printzipioz, 600.000 euro gehiegi iruditzen zaigu; zenbateko txikiagoa proposatuko genuke, zifra hori argudiatzeko arrazoirik egon ezean.

51. ARTIKULUA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTARAKO ESKUBIDEA ETA ORDAINKETA

2. apartatua hau jasotzen da: Prestazioa hilean behin ordainduko da, prestazioaren titularraren kontu baterako banku-transferentziaren bidez edota behar bezala baimendutako beste ordainketa-modalitate batzuen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko finantzen legedian xedatutakoari jarraikiz.

Zein dira kontuan hartuko diren beste modalitateak? Hirugarrenei ordaintzea izan liteke?

56. ARTIKULUA

5. apartatua honako hau adierazten da: Halaber, zerbitzu-mailaren konpromisoak zehaztuko ditu adindunei dagokienez.

Beharrezkoa iruditzen zaigu, adinekoez gainera, oro har zaugarritasun-egoeran dauden pertsonak ere sartzea. Bazterketa-egoeran dauden pertsonak, hizkuntza-arazoak dituzten atzerritarrak eta abar.

58. ARTIKULUA BITARTEKO ELEKTRONIKOEN LEHENESPENA

Berrito diogu laguntza behar duten pertsonari laguntza eman behar zaiela, batez ere laguntza pertsonala. Baita informazioa eta orientazioa aurrez aurre eskatzeko aukera ere. **66. ARTIKULUA** "Zaugarritasun bereziko egoerak" zabalegia izan daiteke.

81. ARTIKULUA DATUAK ESKATZEA

Eguneratze-prozeduran 5 eguneko epea ezartzen da. Denbora gutxi iruditzen zaigu, eta 15 egunera luzatzea proposatzen dugu.



83. ARTIKULUA ALEGAZIOAK ETA ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA.

81. artikuluan bezala, epea 5 egunetik 15era luzatzea proposatzen dugu.

106. ARTIKULUA

2. apartatuan hau jasotzen da: Bereziki, espedienteak hautatzeko eta erabaki automatizatuak hartzeko erabili ahal izango dira adimen artifizialeko sistemak.

Zalantza: Zer dira erabaki automatizatuak? Zer erabaki mota automatizatuko dira?

FEDEFES

Jakinarazten da alegazioak epea amaitu ondoren jaso direla; baina, hala ere, kontuan hartu dira.

BURU OSASUNA EUSKADI, FEDEFES gaixotasun mentala dutenen eta haien senideen elkarteak biltzen dituen federazioa da. Entitatea 1987an sortu zen, eta geroztik, pertsona-talde horren ordezkari gisa jardun du Euskal Autonomia Erkidegoan. 1998az geroztik, onura publikoko aitortpena dauka. Gaur egun, 3.000 familia kide baino gehiago ditu EAE osoan, eta 12.000 pertsona baino gehiago ordezkatzeko dituzte. Hauek dira gure entitatea osatzen duten elkarteak: AGIFES (Gipuzkoa), ASAFES (Araba), ASASAM (Nerbioi Garaiko Eskualdea) eta AVIFES (Bizkaia).

EKARPENAK, DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI EGINAK

1. 2. artikuluan. Egoitza

-Kasu jakin batzuetan, **komunitate terapeutikoak** edo **iraupen luzeko ospitalizazio psikiatrikoak** ere egoitzatzat hartu behar dira (normalean, gizarte-baliabiderik ez duten pertsonak.)

- 2.1.c) artikuluan, *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko gizarte-zerbitzuetako ostatu-zerbitzu eta egoitza-zerbitzu hauek, titulartasun publikokoak edo pribatukoak (ituna, hitzarmena edo zerbitzuak kudeatzeko kontratua dutenak):* 5.- *Desgaitasuna dutenentzako eta buruko gaixotasuna dutenentzako laguntzadun etxebizitzak.*

6.- *Desgaitasuna dutenentzako egoitza-zentroak, aldi baterako bizileku direnean.*

Honela esan behar du

5.- *Desgaitasuna dutenentzako **eta/edo** buruko gaixotasuna dutenentzako laguntzadun etxebizitzak.*

6.a.- *Desgaitasuna dutenentzako **eta/edo buruko gaixotasuna dutenentzako** egoitza-zentroak, aldi baterako bizileku direnean.*

- **Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak barne hartzea, egonaldi iraunkorrean daudenean, funts publikoekin guztiz finantzatuta ez badaude (erabiltzaileen koordainketa). Pertsona horiek ezin izango dute DSBEn zenbateko egokitu bat jaso otordu- edo etxebizitza-gastuez bestelakoetarako, gastu horiek egoitza-plazan sartuta daudelako. Beraz, ez zaie estaldura ekonomikorik ematen gastu hauetarako: oinarrizko jantziak, poltsikoko dirua, laguntza teknikoak (ikusmena, entzumena, egokitzapenak, mugikortasuna eta abar.) edo osasunaren eta ongizatearen arreta. Bestalde, baliteke pertsona horiek banakako laguntza-premiak izatea eta laguntza profesionala behar izatea komunitatean sartzeko.**

2. 6. artikuluan, premia larrian dauden pertsonen titular izateko bete behar dituzten betekizunak arautzen dira.

6.c artikuluan aipatzen denez, gizarte-bazterketaren diagnostiko larria izan behar da; baina, gure ustez, gizarte-bazterketara mugatu behar da, eta **“larria” ezabatu**, hartara gizarte-bazterketa mota guztiak (arina, ertaina eta larria) sartuko baitira, eta **bazterketa-arriskua ere sartu behar da**.

3. 14.2 artikulua, kalteari eta autosufizientziari buruzkoa

-14.2 artikulua kalteari buruzkoa da:

2. Artikulu honen ondorioetarako, bizitza arruntaren oinarrizko jarduerak egitea eragozten edo mugatzen duen kalte fisiko, intelektual, sentsozial edo organikoa jotzen da autonomia pertsonalaren galeratzat.

Kalte psikikoa ere sartu behar da:

2.- Artikulu honen ondorioetarako, bizitza arruntaren oinarrizko jarduerak egitea eragozten edo mugatzen duen kalte fisiko, **psikiko**, intelektual, sentsozial edo organikoa jotzen da autonomia pertsonalaren galeratzat.

-Puntu berean, autosufizientziari buruz ari da:

Bizitza arruntaren oinarrizko jardueratzat jotzen dira hauek: jatea, edatea, garbitzea, janztea, esertzea, altxatzea eta etzatea, esfinterrak kontrolatzea, lekualdatzea, etxeko lanak egitea, gailuak erabiltzea, erabakiak hartzea eta autosufizientzia fisiko, intelektual, sentsozial edo organikoari buruzko antzeko bestelako jarduerak egitea.

Autosufizientzia psikikoa sartu behar da:

Bizitza arruntaren oinarrizko jardueratzat jotzen dira hauek: jatea, edatea, garbitzea, janztea, esertzea, altxatzea eta etzatea, esfinterrak kontrolatzea, lekualdatzea, etxeko lanak egitea, gailuak erabiltzea, erabakiak hartzea eta autosufizientzia fisiko, **psikiko**, intelektual, sentsozial edo organikoari buruzko antzeko bestelako jarduerak egitea.

4. 34. art.- Indize zuzentzailea



34. artikulua.- Indize zuzentzailea. Ez aplikatzeko eskatzen dugu titularra (bizikidetz-unitatekoa edo ezohiko bizikidetz-unitatekoa) desgaitasun edo gaixotasun mentala duen pertsona bat denean.

Kontuan izan behar da desgaitasun edo gaixotasun mentalaren gainkostua, kasu askotan laguntza handia beharko baitu.

Era berean, ez dira indize zuzentzailearekin zigortu behar **bizitza independentera igarotzeko prozesuan dauden** eta laguntza duten etxebizitzetatik etxebizitza berean elkarrekin bizitzera igarotzen diren pertsonak (prozesu horretan, bizitza independenteari laguntzeko zerbitzuak edo hezkuntza- eta gizarte-laguntzako beste zerbitzu batzuk mantentzen dituzte).

5. 44. artikulua.- Diru-sarrera ez-konputagarriak

44. artikulua.- Diru-sarrera ez-konputagarriak. Diru-sarrera ez konputagarrien artean, **erabiltzaileak zentro okupazional batean jaso dezakeen haborokina** sartzea eskatzen dugu, zeinaren helburua baita, funtsean, jendea motibatzea eta zenbait gastu konpentsatzea (garraioa eta abar).

6. Prozedura-alderdiak

- 56. artikulua.- Arreta eta laguntza

Laguntza presentziala bermatu behar zaie gaixotasun mentala duten pertsona batzuei, prestazio hori errazago eskuratu eta izapidetu ahal izateko. Kontuan izan behar da pertsona batzuen eten digitala, eta laguntza eta laguntza presentziala beharko dutela.

- 57. artikulua.- Eredu normalizatuak

Komunikazio erraza behar da, hizkuntza erraza eta ulergarria.

81. 1 eta 83.1 artikulua, errekerimenduak eta alegazioak

Gure iritziz, epeak **hamar egun baliodunekoa** izan behar du, eta ez bost egunekoa, ezartzen den bezala; kasu askotan, izapideak egiteko laguntza beharko dute eskatzaileek.

- 96. artikulua.- Akatsen zuzenketa

96.1 artikuluari dagokionez, adierazten da eskabideak egindako hutsegiteak, akatsak edo kontraesanak zuzentzeko epea bost egunekoa dela. **Beharrezkoa iruditzen zaigu 10 egun balioduneko zuzenketa-epea ezartzea.** Kontuan hartuta batzuek beste batzuen laguntza beharko dutela izapideak kudeatzeko, zaila iruditzen zaigu bost eguneko epean egitea, eta, horregatik, uste dugu 10 eguneko zuzenketa-epe orokorra jarri behar dela. Honako hauek ere sartu behar dira:

-Hirugarren sektoreko entitateak, pertsonen babesa emateko laguntzaileak. Hirugarren sektore sozialeko entitateak lan- eta gizarte-inklusioko prozesuetan laguntzaile gisa aitortzea. Kontuan hartzea fundazioak, pertsonen babesa ematen dieten elkarteak.

-Xedapen gehigarria, non ezartzen den Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretua indarrean jarri eta bi urteko epean, txosten bat egingo duela. Txosten horretan, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren esparruan sartu beharreko ekintza positiboko



neurriak aztertuko ditu, desgaitasuna duten pertsonen bizitza independenterako eskubidea (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikulua) gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak izango dituztela bermatzeko.



LAN ETA ENPLEGU
SAILA

Enplegu eta Gizarteratze
Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

Viceconsejería de Empleo e
Inclusión

2023ko maiatzaren 26a



II. eranskina

2023/05/26KO BILERA-AKTA: INKLUSIORAKO EUSKAL KONTSEILUA

Bertaratutakoak

:

- Alfonso Gurpegi Ruiz, Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila (presidentea)
- Francisco Pedraza Moreno, Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila (idazkaria)
- Lide Amilibia Bergaretxe, Gizarte Politiketako sailburuordea
- Marian Olabarrieta Ibarondo, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria (ordezkoa)
- Mario José Yoldi Domínguez, Etxebizitza eta Prozesu Eragileen zuzendaria
- José Luis Quintas Díez jauna, Osasuneko sailburuordea
- Nicolás Sagarzazu Alzua, Plangintza eta Antolaketa zuzendaria, Hezkuntza Saila
- Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua
- Oscar Seco Revilla, Gizarteratzeko zuzendari nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia (ordezkoa).
- Ekaitz Mentxaka Corral. Ugao-Miravallesko alkatea, Eudelen ordezkari moduan.
- María José Cano Mesías. FEDEAFES
- Mikel Malcorra Ochotorena. ELKARTEAN
- Ana Sofia Telletxea Bustinza. Cáritas Euskadi
- David Telleria Herrera. KONFEKOOP.
- Txema Franco Barroso. FEVAS
- Arantza Saenz de Ugarte Egusquiza. REAS EUSKADI
- Pablo Moratalla Santamaría. EHLABE
- Alfredo Santamaría Santaolalla. Sartu
- Aitor Ipiña Gallastegui. EAPN
- Amaia López Iriondo. CONFEBASK
- Xuria Arza Vélez. UGT
- Jone Robledo Zapatero. CCOO
- Ernesto Notario Ajuria. Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargoa



<p><u>Gonbidat</u> <u>u moduan</u> <u>bertaratu</u> <u>dira:</u></p>	<ul style="list-style-type: none"> - Sara Buesa Rodríguez, Lanbideko Prestazioen eta Inklusioaren zuzendaria. - Arantza González López, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Analisi eta Arau Garapeneko aholkularia - Joseba Zalakain Hernández, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko zuzendaria - Arantza Mendieta Lasarte, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko teknikaria - Edurne Barañano, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzako arduraduna - Dorleta Goiburu Muruaga. Eudeleko teknikaria - Iñigo Urrestarazu García. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren aholkulari juridikoa - Erika Vitoria García. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren aholkulari juridikoa - Jon Iribar Goenaga. Gipuzkoako Foru Aldundia - Matxalen Vicuña Larrañaga, Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen koordinatzailea
<p><u>Ordua:</u></p>	<p>11:00.</p>
<p><u>Gai-zerrenda:</u></p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aurreko akta irakurtzea eta onartzea. 2. Inklusiorako V. Euskal Planaren Lehen Plan Eragilea 2023-2024. 3. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena. 4. Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea indarrean jartzea. 5. Galderak eta eskaerak.

Kontseiluko presidente eta Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuorde Alfonso Gupeguik hasiera eman dio bilerari. Grabatu egingo dela jakinarazi du, eta, lehenik eta behin, adierazi du bilkura hori dela Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen esparru berrian Kontseiluak egindako lehendabiziko bilkura.

Gainera, aukera baliatu du adierazteko lege-esparru berri horrekin Inklusiorako Erakundearteko Batzordea eta Inklusiorako Euskal Kontseilua arautuko direla, bi organoek erregelamendua izan dezaten.

1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.

Kontseiluko presidentek azaldu duenez, FEDEAFESek alegatu du ez dela agertzen aurreko aktan, eta, beraz, aldatu egingo da, María José Cano Mesías FEDEAFES elkarteko ordezkari gisa bertaratu zela jartzeko.

Horrez gain, ez zaio alegazio gehiago egin 2023ko otsailaren 15eko aktari, eta, beraz, behin betikotzat joko da, eta sinatu ondoren bidali egingo da.

2. Inklusiorako V. Euskal Planaren Lehen Plan Eragilea 2023-2024.

Jakina denez, Inklusiorako V. Euskal Plana iaz egin eta onartu zen, eta plan horretan bi urteko bi plan eragile egingo zirela jasotzen zen: bata 2023-2024 aldirako eta bestea 2025-2026 aldirako.

Kontseiluaren bilkura honetan, gaur aurkeztuko da 2023-2024 aldirako plan eragilea, helburutzat duena erdigunean jartzea sistemaren esperimenez, hobekuntza, berrikuntza, trakzioa eta abar. Azken hilabeteotan, Saiburuordetza programa hori lantzen aritu da, eta honako hauek biltzen ditu:

- 17 palanka-politika edo eragile, sistemaren eraldaketan eta/edo V. Planean ezarritako helburuak lortzeko bidean trakzio-eragile edo azeleratzaile izan nahi dutenak. Eusko Jaurlaritzak sailetatik aktibatzen ditu politika horiek enpleguaren, diru-sarreraren, bermearen, gizarte-zerbitzuen, etxebizitzaren, osasunaren, justiziaren edo hezkuntzaren eremuan.
- 17 programa edo jardura esperimenez, erakunde publikoek zein gizarte-entitateek sustatuak, ikuspegi berezia eta berritzailea dutenak, ikaskuntzak sortzen dituztenak eta metodologia berriak ezartzen dituztenak. Emaidza positiboak lortuz gero, beste arlo edo lurralde batzuetara zabal daitezke.
- 14 proiektu esperimenez, gizarte- eta lan-arloko bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen zuzendutako ibilbide mistoetan laguntzeko, sektoreen arteko arreta koordinatua edo sistemen arteko sareko arreta eskaintzeko, 14/2022 Lege berritik eratorritako lan egiteko modu berri gisa.

- 182 hobekuntza- edo aldaketa-jarduera, inklusioaren arloan jarduketak abian jartzeko hartutako konpromiso gisa definituak, lehendik egiten zenarekiko aurrerapena edo hobekuntza dakartenak, eta administrazio publikoek aurkeztuak: Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiak eta 20.000 biztanletik gorako udalek.

Aurrekontuen gaia ere aipatu da; izan ere, 2023rako, 792 milioiko partida dago, eta 2024rako, berriz, 76 milioi ingurukoa. Zenbateko horietan alde handia dago, entitate bakoitzak jada ezarrita zituen aurrekontu-konpromisoen ondorioz. Nolanahi ere, ebaluazio- eta jarraipen-prozesuan kopuru horiek doitu ahal izango dira.

Alfonso Gurpeguik Paco Pedrazari eman dio hitza, 17 proiektu esperimentalak aurkez ditzan:

1. Aurkigune aktibazio soziokomunitarioko zentroak. Bizitegi elkarteak - Zubietxe elkarteak.
2. Ekintza Biribila 2023 - Enplegu Inklusiborako Aliantza. EJ Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza – Koopera.
3. EmaKLanean, bazterketa-arriskuan dauden emakumeei industria-sektorean laneratzeko laguntza ematea. Gipuzkoako Foru Aldundia.
4. Kontziliazio Gunea - Kontziliazioan laguntza behar duten gurasoak gizarteratzeko. Vitoria-Gasteizko Udala.
5. Nomada Jaialdia, etxegabeek edo bazterketa egoeran daudenek eurek haientzat egina. Emaus Gizarte Fundazioa Taldea.
6. Emakume etorkinentzako ekintzailtza-sehaska. Abarka GGKD- REAS Euskadi.
7. Desgaitasun psikikoa edo intelektuala duten artista plastikoen lan-inklusioa. Nahiarte Factory.
8. Prozesu soziosanitarioen interkonexioa, gaixotasun mentala eta adikzioa dutenei arreta personalizatua emateko. Etorkintza Fundazioa.
9. Itsaslur. Lehen sektorean baztertuta dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzen du. Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioa.
10. Dibertsitate funtzionala eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonentzako Bizitza Independentea Babesteko Bulegoa. Arabako Foru Aldundia
11. Bazterketa-egoeran dauden emakumeak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak - Zaindu, Saiatu eta Landu. Sartu Federazioa



12. Enplegu Inklusiboko Proiektu Integrala: UBA Aterpetxe-Eskola. Donostiako Udala
13. Kalteberatasun handiko familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko proiektu pilotua – Sendiko. Bizkaiko Foru Aldundia
14. Kalteberatasun handiko familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko proiektu pilotua – Sendiko. Bizkaiko Foru Aldundia
15. DSBE jasotzen duten etorkinak erregularizatzeko eta laneratzeko ibilbideen «W» proiektua. ENPLEGU ETA GIZARTERATZE SAILBURUORDETZA, EUSKO JAURLARITZA
16. Apiriku, etxegabeentzako eguneko arreta-zerbitzua. Bilboko Udala.
17. Etxebizitza-parke publikoko errentarientzako kudeaketa- eta arreta-zerbitzua. EJ Alokabide.

Paco Pedrazak Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzaren ardurapean dauden 11 proiektuak aipatu ditu, baita beste 6 proiektu ere, beste erakunde edo sail batzuen mende daudenak. 40 proiektu baino gehiago jaso ziren, eta bi fasetan baloratu dira: lehenengoa, ikuspegi objektibo eta kuantitatiboago batetik egindako balorazio-irizpideetan oinarrituta, barne-mailan gehiago; eta bestea, Inklusiorako V. Euskal Planaren ardatzen lurralde-banaketari eta ordezkari buruzko irizpide kualitatiboagoak erabilia egindako balorazioa.

Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren mendeko proiektuak finantzatzeko prozedura zuzeneko dirulaguntzen agindu baten bidez egingo da, eta hilabeteko epean entitateei finantzaketa eman ahal izatea espero da. Ahalegina egingo da aurtengo urtarrilaren 1etik aurrera egindako jarduerak finantzatu ahal izateko; hala ere, azpikontrataziorik badago, egiten diren unetik kontatuko dira, eta, hortaz, proiektu bakoitza aztertu beharko da.

Paco Pedrazak zehaztaper bat egin du, eta gaineratu du Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak finantzatzeko dituen proiektuen hautaketa Inklusiorako Euskal Kontseiluan eta Elkarrizketa Sozialerako Mahaian egindako proposamenak kontuan hartuta egin dela.

Alfonso Gurpeguik **Sara Buesari** eman dio hitza, ibilbide mistoetan laguntzeko 14 proiektu esperimentalak aurkez ditzan. Honako hauek dira:

1. Osasun mentalaren eremuan gizarte- eta lan-inklusioko prozesuak garatzeko lankidetzara publiko-pribatuko proiektu pilotua. Sartu Araba.
2. Emaukera. EDE Fundazioa.

3. Empleando.nos. ADSIS fundazioa
4. Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala ibilbide mistoa. Agiantza Elkarte
5. Gazte Lan: zailtasun bereziak dituzten gazteen gizarte- eta lan-inklusioa bultzatzea.
Bizkaiko Foru Aldundia
6. Enkaremak Bai!. EDE fundazioa
7. Gizakia: lan-bazterketa edo bazterketa-arriskua eta adikzioak dituzten pertsonentzako ibilbide mistoen proiektu pilotua. Gizakia Fundazioa.
8. Elkar Hobetzen: guraso bakarreko familia batzuen gizarte- eta lan-inklusioa hobetzea.
Gaztaroa – Sartu Koop.
9. Suziria: Lehen pausua hiritargorantz. El primer paso hacia la ciudadanía. Peñascal Coop.
10. Sortarazi: erregularizazio-prozesuan dauden etorkin gazteak. Sortarazi.
11. Elkartzen: laguntza espezializatua ematea haurrak eta nerabeak babesteko sistematik ateratzen diren gazteei, gizarte- eta lan-arloko laguntzan. Zabalduz Koop.
12. Ibil2deak: kualifikazio txikiko pertsonak laneratzeko ibilbideak. Emaus Gizarte Fundazioa.
13. Oarso-sarea. Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentzia.
14. Debarbarrena: ibilbide misto integratua iraupen luzeko langabeentzat. Zabaltzen Sartu Koop.

Sara Buesak azaldu du proiektu horien helburua esperimendazioa dela, Ongizate Estatuko sistemen artean partekatutako ibilbideen esparruan esperimendatzea. Ibilbide horiek gizarte eta laneko bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran daudenei zuzenduta daude, eta kontuan hartzen dituzte enplegurako oztopoak (lanekoak direnak zein ez direnak) eta sistema desberdinen sektore arteko jardun koordinatua eskatzen dutenak.

Azpitarratzekoa da erabilitako metodologia berria dela, sistemen arteko diseinu partekatuan oinarritu baita, oinarritik hasita. Esperimendazio horren helburua metodologia partekatu bat sortzea da, laguntza partekatua ematekoa. Hala, metodologia hori azal dezakeen adibideetako bat da kasu baten kudeaketa partekatua, eta hor jarri da arreta: kasuen kudeatzaileen erreferentzia bikoitza dago; bat lan-esparrukoa beti, eta bestea Gizarte Zerbitzuetakoa, Hezkuntzako, Osasuneko...

Era berean, nabarmentzen du eragile guztiek ibilbide horietan esparru guztietatik inplikazio eta parte-hartze handia izan dutela. Bulegoek proaktibitate handiagoa izan dute, baina lan handia egin dute hirugarren sektoreko entitateek, hezkuntza-sistemak, Osakidetzak, Osasun



LAN ETA ENPLEGU
SAILA

Enplegu eta Gizarteratze
Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

Viceconsejería de Empleo e
Inclusión

Mentaleko Sareak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, udalek, aldundiek eta abarrek ere.

Eta horren guztiaren ondorioz, proiektuek 3 arlo biltzen dituzte beren baitan: gehienak lan-eta gizarte-ibilbideak dira, 2 lan-ibilbide ere badaude osasun-arloarekin lotutakoak, eta lan-eta hezkuntza-arloko beste 3. Ahalegina egin da proiektu guztiek esperimentatu nahi diren ibilbideen aniztasun osoari erantzuteko, nolabaiteko lurralde-oreka lortzeko eta hartzaileen aniztasuna kontuan hartzeko; hartara, esperimentazio horri esker ondorioak eta ikaskuntzak lortuko dira, ibilbide misto horietan kasu partekatuen kudeaketa-eredu bat ezartzeko.

Proiektu horiek irailan hasi eta urtebeteko epean garatzea da asmoa, eta prozesua asko zaindu nahi da; kasu partekatuen kudeaketa-metodologia, haren eragina eta emaitzak ebaluatuko dira, eta, batez ere, metodologia horren sistematika aztertuko da, etorkizuneko eredu bat definitzeko. Prozesu horretan inplikaturako entitate guztiek hartuko dute parte – horietako asko batzorde honetako parte dira –, eta ikasteko gune partekatu bat izango dute.

Arantza Mendietari eman zaio hitza, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko kideari, eta Inklusiorako V. Planaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema eta aurreikusitako bi programa eragileak deskribatu ditu.

Batez ere sistema eragilea aldatzen da, bere izaeragatik eta egituragatik egoerari lotuen dagoena. Horrela, proiektu bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea aurreikusten da, aurrekontu-adierazleekin eta emaitza-adierazle gehiago jasota, eta proiektu esperimentaletan zein hobekuntza-jardueretan aplikatuko da. Hobekuntza-jardueri dagokienez, desberdina izango da; izan ere, lehenengo aldiz, entitateek adierazleak bidali dituzte, eta, beraz, ulertzen da adierazleak ateratzea errazagoa izango dela, eta emaitzen erabilgarritasuna entitateen beharretara gehiago egokituko dela; horrekin guztiarekin, errazagoa izango da ebaluazioa eta jarraipena egitea. Eta proiektu esperimentalen kasuan, jarraipen hurbilagoa egingo da, ikaskuntzak eta balizko transferigarritasunak ateratzeko ezarritako helburua bete ahal izateko.

Horrekin guztiarekin, plan eragile bakoitzaren ebaluazioaren txosten globalak egingo dira horietako bakoitzaren indarraldiaren amaieran; hau da, V. Planaren tarteko ebaluazio bat egingo litzateke 2024an, eta bigarren plan eragilearena bat etorriko litzateke 2026ko azken ebaluazioarekin.

Jarraipen Batzordea arduratuko da plan eragile horiek gainbegiratzeaz, eta batzorde horretan egongo dira Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza, Inklusiorako Euskal Kontseilua eta Inklusiorako Erakundearteko Batzordea, Idazkaritza Teknikoarekin batera.

Alfonso Gurpeguik hitz egiteko txanda ireki du.

Mario Yoldik adierazi du Lurralde, Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren mendeko proiektuetako batean ez dela agertzen 2024ko zenbatekoa, baina emango dela datu hori.

Aitor Ipiñak proposatu du Jarraipen Batzordean Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko Inklusio Batzordeako pertsona bat sartzea.

Onartu egin da proposamena, baina Alfonso Gurpeguik adierazi du Kontseilua arautzeko erregelamendua egiteko hausnarketa egiten denean kontuan izango direla gai horiek eta hori izango dela Kontseiluaren osaera aldatzeko unea.

3. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena.

Erregelamendu berri honek aurreko dekretua indargabetzen du, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Lege berria martxoaren 29an sartu da indarrean, baina baditu indarrean jarri ezin diren alderdi batzuk, harik eta horiek arautuko dituen erregelamendu bat egon arte. Horregatik, legean bertan ezartzen da erregelamendua urgentziazko bidetik onartuko dela, eta dekretua izapidetzeko epeak erdira murriztea dakar. Hori dela-eta, hilabete honetan 15 eguneko epe bat ezarri da alegazio publikoetarako, maiatzaren 17ra bitartean, eta hurrengo izapideetan ere (Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa) murriztu egin dira epeak.

Asmoa da erregelamendua irailean indarrean egotea, eta dekretua oso prozedurazkoa denez, ahalegin handia egin behar da funtsezko aldaketen berri emateko eta informazioa zabaltzeko (adibidez, zenbatekoa hiru hilean behin kalkulatzeko), bai entitate, erakunde eta abarrekin, bai hartzaileekin. Ildo horretan, bilera bat egin da Elkarrizketa Zibileko Mahaiko Inklusio Batzordearekin, eta haren bidez komunikazio eta informazio hori indartzeko lan egingo da.

Izapide honen hurrengo urratsetako bat da Inklusiorako Euskal Kontseiluak onespena ematea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuari buruzko txostenari (deialdi honi erantsi zaio). Txostenak 7 entitateren alegazioak jasotzen ditu (EUDEL, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Elkartean, FEVAS, EAPN EUSKADI eta FEDEAFES); alegazio batzuk epez kanpo iritsi dira, baina kontuan hartuko dira.

Alfonso Gurpeguik **Arantza González** eman dio hitza, erregelamenduaren funtsezko elementuak aurkez ditzan.

Lehenik eta behin, Arantza Gonzálezek azaldu den zergatik egin den erregelamendu hau eta zergatik halako presa; izan ere, 14/2022 Legeak benetan berrikuntza funtsezkoak dakartza jende gehiagori babes handiagoa emateko, eta guztiak ez daude behar bezain zehatz definituta legean. Gainera, oso aldaketa garrantzitsuak sartzen dira prozedura mailan, eta horrek paradigma-aldaketa dakar diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketan; aldaketa horiek oso garapen teknikoa eta administrazio-prozedurari oso lotuta dagoena behar dute.

Esan bezala, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketaren ardatza –autonomia-erkidego mailan eta Estatu mailan guztiz berria– prestazioen zenbatekoak zehazteko prozedura da. Prozedura hori ofizioz hasiko da eta aurreko 3 hilabeteen arabera kalkulatu da, erregelamenduan jasotako berezitasun guztiekin.

Beste berrikuntza bat da diru-sarrerak bermatzeko prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzen zaiela, lehen aldiz, 18 urtetik gorakoei oro har. Funtsezko beste gai bat premia larriko egoerei arreta ematea da; egoera horiek legean jasota zeuden, eta erregelamendu bidez garatu behar ziren.

Erregelamenduak 141 artikulua ditu, eta, luze iritzi arren, esan beharra dago oso zorrotza izan nahi izan dela; izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta orain arte hainbat irizpideren aplikazioan oinarritu da, eta, hemendik aurrera, berriz, arau bat izango da hura arautuko duena, eta horrek segurtasuna eta aurreikusgarritasuna emango du aplikatzeko orduan.

Erregelamenduak oso apustu garrantzitsua egiten du izapidetze elektronikoaren alde, eten digitalak saihesteko ekintzak ezarrita, eta, gainera, kasuistika askotan, aurrez aurreko arreta bermatzen da. Beste berritasun bat elkarreragingarritasuna sustatzea da, prestazioa eskatzeko eta izapidetzeko fase askotan administrazioari eta herritarrei lana arintze aldera.

Alfonso Gurpeguik hitz egiteko txanda ireki du:

Mario Yoldik adierazi du araudi izugarria eta oso garrantzitsua iruditzen zaiola, bere sailetik ez dutela alegazioak egiteko astirik izan, baina, epez kanpo egon arren, alegazioak egingo dituztela.

Alfonso Gurpeguik adierazi du ekarpenak aztertuko direla. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen eta oraindik onartzeke dagoen dekretuaren gaiari dagokionez, legeak aurreikusten du egoera hori, jasotzen du EPO indarrean jarriko dela, eta, dekretu hori onartu eta indarrean jartzen denean, ez da etxebizitzarako prestazio osagarri gehiago emango, baina daudenak mantendu egingo dira, eta, pixkanaka, bi urte igaro arte, egoera berrira egokitzen joango dira. Nolanahi ere, etengabeko harremana izango da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin.

Alfredo Santamaría esan du bere proposamenak EAPNren bidez bideratu direla. Saila eta Lanbide zoriondu nahi dituzte komunikazioetan hizkuntza erraza erabiltzeko egiten ari diren ahaleginengatik, dagoeneko nabaritzen ari baitira, eta bide horretan jarraitzea animatzen dituzte. Bestetik, aipatu du Lanbiden ez dagoela agendarik prestazioak eskatzeko izapideak egiteko, eta, horretan lanean ari direla pentsatzen badu ere, atzerapen horren ondorioz, prestaziorako eskubidea dutenak prestazio hori jaso ezinik daudela.

Alfonso Gurpeguik adierazi duenez, urrats guztiak egiten ari dira komunikazio hori hobetzeko eta hizkuntza erraza erabiltzeko, baina lan horretan ezinbestekoa da zuen guztion laguntza, hirugarren sektoreko enpresena, publiko guztiengana iristeko eta informazioa eta komunikazioa arina eta eraginkorra izateko.

María José Canok adierazi duenez, bere iritziz DSBerako eskubidea izango duten pertsonak, beren kargura duten seme-alabengatik prestazioa edo kotizazio gabeko pentsioa kobratzen duten eta gaur egun eskubide horren onuradun ez diren pertsonak dagokienez, elkarre baten esparruan ez badaude, ez dute informazioa eskuratuko, eta pertsona horiei komunikatzeko eta haiengana iristeko moduren bat bilatu beharko litzateke.

Alfonso Gurpeguiren esanetan, erronka da, halaber, iristea eta bereiztea nork behar duen, eta nor ari den jasotzen. Gainera, irailetik aurrera kanpaina orokor bat egingo da, eta kanpaina fokalizatuagoak ere bai, bideratuagoak beren eskubidearen berri ez dutenengana. Lehen esan bezala, guztion laguntza beharko da.

Ana Sofía Tellecheak jakinarazi du bere ekarpenak EAPNren barruan egin direla. Eten digitala saihesteari dagokionez, eskatu du kontuan har daitezela atzeritarren, BAKQ bidez sartu ezin daitezkeen eta izapidetze digitalerako sarbiderik ez dutenen zailtasunak.



Alfonso Gurpegik erantzun du zailtasun horiei erantzuteko alternatibak aztertzen ari direla, eta Sara Buesak azalduko dituela ondoren. Gainera, ildo horretan, oso garrantzitsua izango da hirugarren sektoreko entitate guztien parte-hartzea, unerren batean haien ordezkari izan baitaitezke.

Mikel Malkorrek azaldu du ELKARTEANen ekarpenetan ildo gidari bat dagoela: desgaitasuna duten pertsonen eskubideak une oro kontuan hartzea, haien bizimodu independentea errazteko.

Beste inork hitza hartu ez duenez, **bozkatu egin da** Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena.

Ez dago aurkako botorik.

Abstentzio-botoak: 1 CCOO. Jone Robledok, CCOOren ordezkari gisa, argudiatu du forma-kontu bategatik abstenitu dela: prozedura kontu bat dela-eta, berandu eskuratu dute txostena, baina ez daude, inola ere, haren edukiaren aurka.

Aldeko botoak:

- Alfonso Gurpegi Ruiz, Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila (presidentea)
- Francisco Pedraza Moreno, Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila (idazkaria)
- Lide Amilibia Bergaretxe, Gizarte Politiketako sailburuordea
- Marian Olabarrieta Ibarondo, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria (ordezkoa)
- Mario José Yoldi Domínguez, Etxebizitza eta Prozesu Eragileen zuzendaria
- José Luis Quintas Díez jauna, Osasuneko sailburuordea
- Nicolás Sagarzazu Alzua, Plangintza eta Antolaketa zuzendaria, Hezkuntza Saila
- Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua
- Oscar Seco Revilla, Gizarteratzeko zuzendari nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia (ordezkoa).
- Ekaitz Mentxaka Corral. Ugao-Miravallesko alkatea, Eudelen ordezkari moduan.
- María José Cano Mesías. FEDEAFES
- Mikel Malcorra Ochotorena. ELKARTEAN
- Ana Sofia Telletxea Bustinza. Cáritas Euskadi
- David Telleria Herrera. KONFEKOOP.
- Txema Franco Barroso. FEVAS
- Arantza Saenz de Ugarte Egusquiza. REAS EUSKADI



- Pablo Moratalla Santamaría. EHLABE
- Alfredo Santamaría Santaolalla. Sartu
- Aitor Ipiña Gallastegui. EAPN
- Amaia López Iriondo. CONFEBASK
- Xuria Arza Vélez. UGT
- Ernesto Notario Ajuria. Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargoa

Onartutzat eman da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena.

4. Informazioa: 14/2022 LEGEA, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena, indarrean jartzea.

Alfonso Gurpeguik azaldu duenez, puntu honen helburua da legearen hedapenari buruzko informazioa ematea, bai eta legeak jasotzen dituen jardueren aplikazioan aurreikusitako plangintzari buruzkoa ere. Horretarako, Sara Buesari eman dio hitza.

Sara Buesak azaldu du, aipatu den bezala, legea pixkanaka hedatu behar dela, eta gai batzuk erregelamendua sartu arte itxaron behar dutela, segurtasun juridikoa dela eta.

Apiriletik, legea indarrean jarri zenetik, 50.000 espediente baino gehiagoren zenbatekoak egokitu dira, eta lege berriak aurreikusten duen zenbatekoen eta osagarrien sistema berrira egokitzeko prozesu automatikoa egin da. Horretarako, zenbatekoen aldaketak, kalkulu-sistema berria eta haiei eragin diezaieketen gai zehatzak ondo azaltzeko ahalegina ere egin da, eta gutunak bidali zaizkie prestazioaren titular guztiei.

Martxoaren amaieratik, prestazioak eskatzeko eredu berria eskuragarri dago webgunean eta bulegoetan, eta prestazioak eskatzeko eredu bakarra da. Eskuragarri dago erantzukizunpeko adierazpenaren eredu berria ere. Hor jasotzen dira elkarreragingarritasunaren bidez egiaztatu ezin diren baldintza guztiak, eta horrek arinagoa egiten du prestazioaren eskaera; baldintzok eskaera aurkeztu ondoren egiaztatuko dira, hurrengo 6 hilabeteetan.

Legeak izapidetze telematikoari buruz aipatzen duen guztia ere artikulatzen ari da; gaur egun, eskaera telematiko bat egin daiteke Erregistro Orokorraren bidez, baina lanean ari dira urtearen amaieran guztia ondo antolatuta eta abian egon dadin.

Gainera, mekanismoak bilatzen ari dira NANik eta AIZrik ez duten pertsonen izapide guztiak bide telematiko horren bidez egiteko aukera izan dezaten. Gai hori lantzen ari dira lizenperek, eta konponbidea ez da erraza, baina badaude beste aukera batzuk. Ildo horretan, abenduan KZgunearen bidez BGDS eskatzearekin egin zen bezala, eredu hori zabaldu nahi da DSBerako.

Azaldu denez, agendetan nabarmen egin du gora eskaera berrien kopuruak: urtarrilean 1.500 inguru eta maiatzean 2.500 dira. Agendak doituz joango dira eskariaren hazkundeari aurre egiteko, eta, maiatzetik aurrera, emakida berriak eta berritzeak egiten hasi dira. Eta erregelamendua irailean onartzen bada, hiru hilean behingo kalkulu-logika berria urrian aplikatzea aurreikusten da.

Erregelamendua indarrean jarri aurreko unea funtsezkoa da, eta, beraz, ahalegina egingo da hura ondo uler dadin: pertsona guztiei gutun bidez jakinaraziko zaie hiru hilean behingo kalkulua eta noiz egokitzen zaien eguneratzea. Eta, bestalde, bilerak egingo dira entitate, elkarte eta eragile inplikatuekin, horren guztiaren berri izateko.

Legean aurreikusitako kontrol- eta ikuskapen-prozedurak ere antolatzen ari dira, zuzkidura berriak sartu bitartean.

Eta Inklusioaren esparruaren eta plan eragilearen esparruari dagokionez, enplegu-bulegoetan arreta emateko eta esku hartzeko eredu berri bat ezarri nahi da. Gogor lan egin da eredu horretan azken hilabeteotan, eta 6 bulegotan egingo da pilotajea, urteko azken hiruhilekoan.

Ana Sofía Tellecheak galdetu du ea badakien Lanbideren zer bulegotan egingo den pilotajea, eta ea jakin daitekeen.

Sara Buesak esan dio ezin duela datu horren berri eman, Lanbideren barne-komunikazioa zaintzeko, baina 3 Bizkaian, 2 Gipuzkoan eta 1 Araban direla.

5. Galderak eta eskaerak.

- Alfonso Gurpeguik azken urteotan udaletako eta aldundietako ordezkariak izan duten parte-hartzea eta lankidetzak eskertu nahi ditu.
- Aitor Ipiñak Inklusiorako Euskal Kontseiluaren osakerari buruz galdetu du, eta adierazi du laster hura arautzeko erregelamendu bat espero duela.

Alfonso Gurpegui ados dago: eginkizun dagoen kontu bat da.



Eta beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da 2023ko maiatzaren 26ko 12:15ean.

O.E.

FRANCISCO PEDRAZA MORENO	ALFONSO GURPEGUI RUIZ
Inklusiorako Euskal Kontseiluaren idazkaria	Inklusiorako Euskal Kontseiluaren presidentea